

---

# 1973ko martxoaren 24an desagertutako hiru gazte coruñarrei buruzko txostena

---

EHUko Giza Eskubideen eta  
Botere Publikoen Katedra



Giza Eskubideen eta  
Botere Publikoen Katedra  
Cátedra de Derechos  
Humanos y Poderes Públicos



2018ko martxoaren 24a

---

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren  
**enkarguz egina**

---

*Euskadi, auzolana*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

---

## Aurkibidea

Aurkezpena	5
<b>I. Aurrekariak</b>	<b>7</b>
1. Sarrera	8
2. Hiru gazte coruñarrak	10
3. Desagerpenari buruzko lehen informazioak prentsan	10
3.1. <i>La Voz de Galicia</i> , 1973ko apirilak 6	10
3.2. <i>ABC</i> , 1973ko apirilak 22	11
3.3. <i>La Vanguardia Española</i> , 1973ko apirilak 29	12
3.4. <i>ABC</i> , 1973ko maiatzak 29	13
3.5. Sud-Ouest egunkaria	13
4. Panfletoak	13
5. <i>ABC</i> egunkariko kronikak hurrengo hiletan	16
5.1. <i>ABC</i> , 1973ko ekainak 1	16
5.2. <i>ABC</i> , irailak 8	16
5.3. <i>ABC</i> , 1973ko abenduak 27 eta 26	17
5.4. <i>ABC</i> , 1974ko urtarrilak 3	19
5.5. <i>ABC</i> , 1974ko urtarrilak 5	19
5.6. <i>ABC</i> , 1974ko urtarrilak 6	19
5.7. <i>ABC</i> , 1974ko urtarrilak 8	19
5.8. <i>ABC</i> , 1974ko urtarrilak 10	20
6. Coral Rodriguezen borroka	20
6.1. Galdera Senatuan Mayor Orejari 1999ko martxoaren 24ko osoko bilkuran	20
6.2. Legez besteko proposamena Eusko Legebiltzarrean, 2005eko otsailak 3	21

<b>7.</b>	<i>El Mundo</i> egunkariaren erreportajeak _____	22
7.1.	A. Rojo, 2001eko ekainak 17: <i>El crimen más oculto de ETA</i> _____	22
7.2.	<i>El Mundo</i> , 2005eko ekainak 11: <i>Los tres gallegos desaparecidos, otro gran misterio de ETA</i> _____	23
7.3.	Dokumentala. “ <i>El crimen más oculto de ETA</i> ” I eta II. Egilea: <i>El Mundo TV</i> . Emisioa: A3 telebista-katea _____	24
<b>II.</b>	<b>Azterketa juridikoa</b> _____	<b>27</b>
1.	Sarrera _____	28
2.	Jurisdikzio eskuduna _____	28
3.	Sumarioaren urrats nagusiak (1973-1975) _____	29
3.1.	1973. urtea _____	30
3.2.	1974. urtea _____	30
3.3.	1975. urtea _____	36
4.	Prozesuaren bermeak: 1974ko sumarioaren azterketa _____	38
4.1.	Frantzian egindako jarduketak _____	39
4.2.	Espainiako agintaritzen jarduketak _____	39
<b>III.</b>	<b>Sintesia: amaierako gomendioak</b> _____	<b>41</b>
	Bibliografia eta beste iturri batzuk _____	44



# Aurkezpena

Txosten hau Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzeta Idazkaritza Nagusiak (Lehendakaritza, Eusko Jaurilaritza), 2017ko jarduera-programaren baitan, Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrari egindako enkargu baten emaitza da. Euskadin motibazio politikoko testuinguruan gertatutako giza eskubideen urraketen kasu entzutetsuei buruzko ikerketa-ildoarekin jarraitzea aurreikusi zen programa horretan; hala, bigarren txosten hau egin da (Eduardo Moreno Bergaretxeren<sup>1</sup> desagertutako buruzkoa izan zen lehenengoa).

Ikusi ahal izango den moduan, ez dago ziurtasun handirik kasu honen inguruan; gauza bakarra da ziurra, Jose Humberto Fouz, Jorge Juan Garcia eta Fernando Quirogaren desagertzea, lau hamarka baino gehiagoan era mingarrian iraun duena. Gertatutakoaren inguruabarrei, hiru gazteen patuari eta, noski, haiek dauden lekuari buruzko zalantzak bizi-bizi dituzte familiek, itxi ezin den zauri baten pare, eta nahigabeak jarraitu egiten du, zama handia da, gure herrian oraindik argitzeko dauden giza eskubideen urraketa larrien legatuan.

Txosten honen xedea ezin da izan, justiziaz, egia jakiteko eskubideak behar lukeen –eskatzen duen– erantzuna ematea, baina ekintzak eskatzen dituen larritasun handieneko kasu bati buruz ohartarazteko balio dezake, balio behar du. Zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batek bilatzen jarraitu behar du, eta ahalegina egin behar du itzaropenerako leiho txiki bati irekita eusteko, egunen batean egia gailendu dadin. Aldaba-hots baten gisa, txosten honek helburu hori lortzen lagundu beharko luke, eta argia ikusteko ahaleginei beste bultzada bat eman beharko lioke. Nolanahi ere, gutxienez, hiru pertsona horien desagertutako buruzko kasu hau gizartean, maila politikoa eta instituzionalean ezagutarazten lagundu behar du txostenak, eta hari errekonozimendua ematen, kasu larria izan arren bereziki ezkutuan egon baita, gure herrian gertatutako giza eskubideen urraketei buruzko eztabaidetatik kanpo.

Dena den, gertaerak hain nahaspilatuak izanik, txostenaren egitura ez da hain analitikoak izan, bai, ordea, deskribatzaileagoa. Nahaste handia dago iturrien eta horien azpian dauden hipotesien artean, eta, horrenbestez, zer dakigun eta zer ez deskribatzeari eman zaio lehentasuna; hau da, ahalegina egin da zantzuak ez interpretatzeko eta zantzu horien arteko kontraesanak ez nabarmentzeko, interpretazio horrek ez duenean arrazoizko funtsik kasua argitzeko. Kasuari buruz egunkarietan argitaratutako artikuluak eta beste agiri dokumental batzuk bilduz, auziaren egoera ordenatu nahi da, bere ziurtasun eta kontraesanekin. Txostenaren lehen erdian, lehen zati luzean, kasuaren kronologia jaso da, eta bigarren erdian, jarduketa judizialak deskribatu dira, desagertutako ondoren irekitako sumarioa eduki nagusitzat hartuta. Gertaerak epaitzeko jurisdikzio eskudunari buruzko zenbait gogoeta sarrera modura egin dira, eta sumarioko alderdi nagusiak zerrendatu dira. Atal horren amaieran, desagertutako ikertzeko agintariek egindako jarduketei buruzko zenbait hausnarketa jaso dira; hasieratik nabarmentzekoa da jarduketa horietan ez dela antzeman aparteko larritasuneko gertaeren aurrean (txosten honetan aipatzen direnak) desiragarri litzatekeen edo eskatu beharko litzatekeen ardura.

Bigarren zatian, gai juridikoei buruzko zenbait gogoeta jaso dira, teknikoagoak, baina horien garrantzia murriztea eta oin-oharretara mugatzea<sup>2</sup> erabaki da; hau da, argitasunari eta txosten honek sustatu nahi duen dibulgazio-xedeari eman zaio lehentasuna.

Txostenaren amaieran, laburpen bat eta zenbait gomendio daude, eta, horrez gain, zer bibliografia eta zer iturri erabili diren adierazi da, zerrenda banatan.

Txostena, funtsean, Bertha Gaztelumendik egin du; bera arduratu da gertaeren atala osatzeaz, eta, neurri handi batean, baita sumarioaren azterketa egiteaz ere. Bestalde, Enara Garrok alderdi juridikoak gainbegiratu eta bideratu ditu, Laura Yanguas eta Leire Garrastatxuren laguntzarekin. Azkenik, Jon Mirena Landa arduratu da txosten osoaren zuzendaritza- eta koordinazio-lanez.

1 EHU-KO GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN KATEDRA: *Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera*, Eusko Jaurilaritza, 2017 (webgune honetan dago eskura: <http://katedraddhh.eus/eus/>).

2 Oin-ohar horiek naturaltasunez lotuko lirateke prozedura irekitzeko eta zigorra ezartzeko aukerei, preskripzioari eta amnistiari buruzko hausnarketekin; hausnarketa horiek jada jaso ziren beste txosten honetan –eta, neurri handi batean, komunak dira: *Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera*, Eusko Jaurilaritza, 2017.



---

# I Aurrekariak

---

---

# 1. Sarrera

---

Urteak behar izan dira Irunen bizi ziren Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga gazte coruñarren istorioa osatzeko. Lan hori egiteko, kazetariak emandako informazioak, poliziaren konfidenteak esandakoak eta ETAko militante ohien adierazpenak erabili dira, zenbait komunikabide eta agerkarietan argitaratu direnak bildu ondoren.

Txosten honen lehen kapituluak ordena kronologikoak biltzen eta aztertzen ditu hiru gazteen desagerpenaren gaineko kazetaritza-artikuluak, eta beste agiri dokumental batzuen gaineko erreferentziak txertatzen ditu, hala nola garai hartako panfletoak eta 1974. urtean abiatu zen sumarioa.

Ondoren, hurrengo kapituluan, auziaren analisi juridikoari helduta, sakon aztertuko da 1/1974 Sumarioa. Azterlan honen amaieran, eranskin batean, sumarioan abiatu diren akzio judizialen zerrenda adierazi da. Behin-behinean artxibatu dira horiek guztiak.

ABC eta La Vanguardia egunkariak kaleratu zituzten lehen kroniken sorburua “iturri propioak” izan ziren. Hori adierazi zuen, bederen, Madrilgo egunkariak. Horrez gainera, bestelako iturrien aipamen lainoa egin zuen, eta ondoriozta daiteke poliziaren konfidenteak edo egunkari horien informatzaileak baliatu zituztela. Kasu jakinen batean, jendarmeriaren edo polizia frantsesaren ikerketen erreferentzia urrunak ematen dira, baita gertakariaren lekuan izan ziren lekukoaren informazioak ere, baina ezin izan da, oraingoz, horien egiazkotasunik konprobatu.

1/1974 sumarioak adierazten du ABC egunkariko Alfredo Semprun kazetariak uko egin ziola, epailearen aurrean, bere iturrien berri emateari, bere informatzaileen segurtasuna babesteko. Erreserba-egoeran geratu zen, beraz, bere kazetaritza-lanetan argitaratu ziren informazioen jatorria.

Agerkarietan zabaldu den bertsio nagusi iritsi da gaur egunera, eta adierazten du hiru gazte galiziar horiek Miarrizera edo Donibane Lohizunera joan zirela “*El último tango en Paris*” filma ikustera 1973ko martxoaren 24ko arratsean. Ondoren, zerbait edan zuten Donibane Lohizune eta Miarritze bitarteko taberna batean, eta errefuxiatu politikoen talde batek polizia espainiarrekin nahastu, eraso egin eta auto batean sartu zituzten. Ondoren, bahitu, torturatu eta hil egin zituzten. Ez da gerora haien berririk izan eta ez dira aurkitu haien gorpuak.

Ikerketa-talde honek gertakariari buruz aurkitu duen lehen albistea *La Voz de Galicia* egunkariak 1973ko apirilaren 6an emandakoa da. Hala ere, ABC egunkariak handik egun gutxi batzuetara eman zuen hiru gazte galiziarren desagerpenaren berri, eta egunkari horrek egin zuen, hortik aurrera, kasuaren gaineko kazetaritza-jarraipen handiena.

Finean, ABC egunkari madrildarrak gertakari horri buruz argitaratu zituen informazioen gainean eraiki dira, gero, kasuaren kontakizun nagusia eta beste komunikabide batzuek errepikatu eta zabaldu dituzten bertsioak.

Hala ere Humberto Fouz gaztearen ilobak, Coral Rodriguez andreak, Florencio Domínguez kazetariari<sup>3</sup> adierazi zion iturri ofizialek ez dutela inoiz ere berretsi ABC egunkariak emandako bertsio hori.

Kazetariak eman dituzten informazio guztiek adierazi dute ETA izan zela krimenaren erantzule. ETAk ez du inoiz ere bere gain hartu Galizian jaio eta Irunen bizi ziren hiru gazteen desagerpenaren eta heriotzaren gaineko egiletzarik, baina ez du inoiz ere gezurtatu gertakarietan parte hartu zuenik.

Bi sumario abiatu dira desagerpen misterioetsuaren nondik norakoak argitzeko, baina ez dute argitu zer gertatu zen Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga gazteekin 1973ko martxoaren 24ko arrats hartan, Irunen, azken aldiz ikusi zituztenetik.

Donostiako Epaitegiak 1974. urtean abiatu zuen lehen sumarioa, hiru familien kereila onartu ondoren. Kerei-la horrek homizidioa, erailketa eta lapurreta egotzi zien Tomas Perez Revillari eta gertakariaren balizko egileei. Sumarioa 1975eko apirilaren 17an itxi zen, auto batek hura amaitutzat deklaratu ondoren, ezin izan zelako pertsona konkretuen aurkako prozedurarik abiatu, hau da, gaztelaniaz adierazten den moduan: “sin que se haya dirigido el procedimiento contra persona alguna determinada”<sup>4</sup>.

---

3 DOMINGUEZ, F. “Cadáveres en el armario de ETA” LA VANGUARDIA. 2000ko apirilak 30.

4 Antonio Salinas Yanes epailearen autoa, 1/1974 sumarioaren amaiera adieraztekoa



Familiaren prokuradorearen eskaria aintzat hartu gabe, magistratu instrukziogileak ez zion biderik zabaldu Frantzian gertakarien gaineko ikerketa judizial bat egiteko aukerari. Ez zuen onartu, ezta ere, garai hartako prentsak eta Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko Ikerketa Sozialeko Komisia Nagusiaren 46. zenbakiko Buletinak A Coruña-ko hiru gazteen desagerean eta erailketan inplikaturiko pertsona moduan adierazi zituztenak galdekatzeko eskaera, kereila jarri zuen alderdiak egindakoa.

Ez zen ikertu gertakarien egiletza ETArri leporatzen zion hipotesia. Hala ere, ez zen bestelako ikerketa-ildorik abiatu desagerean horren bestelako azalpenak bilatzeko, hori iradokitzen da, izan ere, sumariora ekarritako dokumentazioak<sup>5</sup>.

Coral Rodriguezek egoeraren irakurketa hau egin zuen *La Opinión A Coruña* egunkarian:

*“Irakurri ondoren, etsita geratu nintzen. Ez zegoen ia ezer ere. ABC egunkariako artikulua bat, Revillari deitzeko eginbide batzuk eta prokuradoreak egindako zenbait eskaera, epaileak beti ‘no ha lugar’ formularekin erantzundakoak. Besterik egin gabe itxi zen”<sup>6</sup>.*

Urteak igarota, 1999. urtean, kasua Senatura eraman zuen Coral Rodriguezek. Parlamentu-galdera baten bidez, garai hartako Barne ministroari, Mayor Orejari, interpelatu zion, eta desagerean ikertzeko konpromisoa hartu zuen hark.

2005. urtean, Humberto Fouzen ilobak agerraldi bat egin zuen Eusko Legebiltzarrean, eta, agerraldiaren ondoren, ganbera horrek lege besteko proposamen onartu zuen, ETak desagerrarazi dituen pertsonen gorpuak topatu eta identifikatzeko neurriak har zitzan eskatzeko Eusko Jaurilaritzari<sup>7</sup>. Bi ganbera horietan abiatu ziren jardunbideak ere ez zuten hiru gazteekin gertatutakoa argitu.

Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga gazteak terrorismoaren biktima izan zirela aitortu da, eta Terrorismoaren Biktimen Laguntzeko Zuzendaritza Nagusiaren zerrendan ageri dira.<sup>8</sup> Horrez gainera, “La Gran Cruz de reconocimiento civil a las Víctimas del Terrorismo” kondekorazioa jaso zuten 2000ko azaroaren 24an.<sup>9</sup>

Humberto Fouzen ilobak abiatu zituen ekimen politikoen ondorioz, eta EL MUNDO TV komunikabideko arduradunek, hiru gazteen gorpuak non lurperatu ziren argitzeko datu berriak eman ondoren, jarritako salaketa batek eraginda, berriro zabaldu zen auzia 2005. urtean. Auzitegi Nazionalak hartu zuen bere gain sumarioa, eta Fernando Andreu epailea izan zen haren instrukziogilea.

Coral Rodriguezek, 2006. urtean, Andreu epailearekin aurrez aurre hitz egitea lortu zuen, eta azken horrek polizia-txostenen zain zeudela esan zion, baina Humbertoren iloba etsita azaldu zen: *“Iruditzen zait ez zela ezer ere egin”<sup>10</sup>.*

Kasua 2006ko azaroan itxi zen, eta ez da azken sumario horren gaineko informaziorik zabaldu. Coral Rodriguezek berak harriduraz hartu zuen albistea, orain hilabete gutxi jakin duenean, zeharkako bide batetik, kausa artxibatu zela, bere garaian ez baitzioten artxibatzearen berririk eman<sup>11</sup>.

2017ko urriaren 19an, ostiralarekin, Euskal Herriko Giza eta Eskubide eta Botere Publikoen Katedrak egindako telefono-dei bati erantzun zion Coral Rodriguezek.

Elkarrizketa bat egiteko hitzordua adostea zen deiaren helburua, eta gerora ikerlana elkarrizketa horrekin dokumentatzea. Interesa agertu zuen Coralek, eta kasuaren egoera judizialaren berri eguneratua eman zizun. Esan zizun, urte horretan (2017), “Naparra” auzia zeraman epaitegiak Frantziari erregu-eskaera bat egin ziola, Auzitegi Nazionaleko Terrorismo Biktimetarako Zuzendaritzara jo zuela, izapide horrekin batera Humberto, Jorge eta Fernandoren kasuaren gaineko informazioa eskatu ote zen, edo, hala egin ez bazen,

5 Ikusi Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren Txostena, eranskinaren X. orrialdean.

6 ROMERO, S. “El crimen más oscuro de ETA” LA OPINIÓN A CORUÑA. 2017ko apirilak 24.

7 EFE. “La emoción de una diputada del PSE-EE logra el consenso de la Cámara vasca para aprobar una iniciativa”. EL MUNDO. 2005eko otsailak 3.

8 Barne Ministerioa. “Fallecidos Terrorismo Indemnizados Ministerio Interior” Terrorismoaren Biktimei laguntzeko Zuzendaritza Nagusia.

9 “Concedida a Lluç la Gran Cruz de Sanidad”. EL PAÍS. 2000ko azaroak 25.

10 ROMERO, S. Op. Cit.

11 Coral Rodriguez Fouzekin 2017ko urriaren 19an izandako telefono-elkarrizketa.

---

eskatu ote zitekeen jakiteko. Hiru gazte galiziarren desagertzea 2006ko azaroan artxibatu zela jakinarazi zien auzitegi horrek.

Azkenik, honako hau esan zigun: “ETA desagitekotan denez, nire osaba Humberto eta bere bi lagunak non dauden esan dezakete. Hori egin dute, esaterako, Irlandan, batzorde independente bat sortu baitute Ostiral Santuko Akordioa adostu ondoren, informazio anonimoa baliatu eta desagertutako pertsonen gorpuzkiak bilatzeko”.

## 2. Hiru gazte coruñarrak

---

A Coruñan jaio zen Jose Humberto Fouz<sup>12</sup>, 1943ko irailaren 28an. Ezkongabea zen, hogeita hamar urte zituen desagertu zenean, interpretaria zen Irungo “Traffic SA” garraio-agentzian. Bere arreba Isabel eta bere koinatu Jose Cesareo Ramírez Ponteren etxean bizi zen, Irunen, bi urte lehenagotik.

Hizkuntzak ikasi zituen eta ikasketa horiek hobetzeko saioak egin zituen Ingalaterran, Belgikan, Frantzia, Suitza eta Suedian. Lan-kontratuak izenpetu zituen herrialde horietan, eta kontratuek irauten zuten denboran, herrialde horietako hizkuntzen gaineko jakintza handitzen zuen. “Ibilbide horretan, frantsesez, ingelesez, italiaraz, alemanez eta errusieraz hitz egiten ikasi zuen, eta azken bi hizkuntza horiek ikasten jarraitu zuen Altza auzoko etxebizitza partikular batean –alemana–, eta Donostiako Urbieta kaleko Edwards akademian –errusiera–”. Ikasi zituen hizkuntzei esker, Traffic SA enpresan hasi zen lanean, sail komertzialeko interprete-lanetan. “Bere anaia politikoa Jose Cesareo Ramírez Ponte jaunaren bidez lortu zuen lanpostu hori”. Bere hileko soldata 25.000 pezetakoa zen. Austin 1.300 markako autoa erosi zuen, C-2143-B matrikuladuna.

Fernando Quiroga Veiga<sup>13</sup>, 26 urtekoa, A Coruñan jaio zen, 1947ko apirilaren 9an. Irunen lan bat bila ziezaien eskatu zion bere lagun Humberto Fouzi. Ezkongabea zen eta, desagertu zenean, aduanetako “Carlos Llanos” lan egiten zuen. Urtebete zeraman Irunen bizitzen.

Jorge Juan Garcia Carneiro A Coruñan jaio zen, 1949ko irailaren 4an, eta hogeita hiru urte zituen. Administrazioa zen lanbidez, eta ez zegoen ezkontuta. Bi hilabete ziren Jorge Irunera iritsi zela, eta lan bat lortu zain zegoen, “bat lortuko baitziren lagunaren koinatuak<sup>14</sup>”.

Azken bi pertsona horiek ere bere lagun Jose Humberto Fouzen arrebaren etxean bizi ziren, Irunen.

## 3. Desagertuari buruzko lehen informazioak prentsan

---

### 3.1. LA VOZ DE GALICIA, 1973ko apirilak 6

Ikerketa-talde honek egindako lanaren arabera, Fernando Quiroga Veiga, Jose Humberto Fouz Escobero eta Jorge Juan Garcia Carneiro galiziar gazteen desagertuari buruzko lehen informazioa La Voz de Galicia egunkariak eman zuen 1973ko apirilaren 6an, ostiralez<sup>15</sup>.

Hau zuen izenburua: “Desagerturik Irunen bizi diren hiru gazte coruñar” eta azpian “Ez dago haien berririk martxoaren 24az geroztik”. Honako hau zioen kronikak: “lanera joan ziren hiri gipuzkoar horretara. Aduane-

---

12 KEREILA homizidioa, erailketa eta lapurreta egiteagatik Tomas Perez Revillaren aurka eta ekintza kriminalen egile izandako pertsonen aurka. Donostiako Epaitegia. 1974ko urtarrilak 7.

13 KEREILA. Op. Cit.

14 Irungo polizia-komisaldegiak 1973ko apirilaren 17an egindako atestatu-ziurtagiria. Aurretiazko eginbideak. 1/1974 sumarioa. Donostiako 3. Instrukzio Epaitegia.

15 CIFRA. Tres jóvenes coruñeses, residentes en Irún, desaparecidos. LA VOZ DE GALICIA. 1973ko apirilak 6.

tako agentzia batean lan egiten zuen lehenak, garraio-enpresa batean bigarrenak eta hirugarrena, aurreko bien laguna, lan bila joana zen Irunera”.

CIFRA agentziak emandako informazioarekin osatu zuten kronika, eta bertan adierazten zen Coruñako 2143-B matrikula zuen auto batean zihoazela gazteak. Hipotesi moduan, adierazten zen “akaso istripu bat izan dute jende gutxi izaten den lekuren batean edo Frantziara igaro zitezkeen, mugatik gertuko lekuren batera”.

Kronika horrek hauxe dio, aurreko bi egunetan, apirilaren 4an eta 5ean, gertatutakoen gainean: “Frantziako jendarmeriak La Cornichen dituen zerbitzuek kostaldea miatu dute, ibilgailua itsasora erori ote den ikusteko. Lan horiek ez dute emaitzarik izan orain arte eta urpekari-talde bat jarriko da lanean Irun eta Frantzia bitarteko urak arakatzeko”.

Familiak Irungo poliziaekin harremanetan jarri zirela konfirmatu zuen egunkari horrek. “Fernandoren aitak, Jaime Quirogak, egunkariari esan dio martxoaren 24an, larunbatean, telefonoz deitu ziola bere semeak arratsaldeko hirurak aldera, lana amaitu berri zela eta zinemara zihoala esateko. Itxura batean, Fernandok enpresako idazkarietako bati esan zion zinemara zihoala bi lagunekin, Frantziara”.

Kronika amaitzeko, hiru gazteek A Coruñara egin berri zuten bisita baten berri ematen zen: “Martxoaren 18an eta 19an izan ziren azken aldiz A Coruñan, “zubia” aprobetxatuta. Bidaia Austin 1.300 markako auto zuri batean egin zuten. Humberto Fouz da haren jabea eta C 2143-B zenbakiko matrikula du. Frantziara ibilgailu horretan bertan joan zitezkeela uste da”.

### 3.2. ABC, 1973ko apirilak 22

Kazetaritza-testu honek ekin zion gerora ABC egunkariak berak eta garai hartako beste agerkari idatzi batzuek ustez gertatu zirenen gainean garatu eta indartu zuten kontakizunari. Testu hori izan zen, gainera, desagertuta bost errefuxiatu politikori leporatu zien lehena.

“*Hiru gazte espainiar desagerturik*” izan zen ABC egunkariak 1973ko apirilaren 22an kaleratu zuen kronikaren titularra. Alfredo Semprunek izenpetu zuen kronika<sup>16</sup>.

Testuan zehar, hauek esaten ziren: “Desagertutzat jotako hiru gazte espainiarren bila ari da ondoko herrialdeko polizia. Zinema-emanaldi jakin bat ikustera joateko igaro zuten muga”.

Aurrerago, hauek esaten dira: “gure iturrien arabera, ikerlari frantsesek zehaztu dute desagerturik dauden hiru gazteak (...)zinema-aretoetik irteteen, eta beren bizilekura itzultzeko bidean ari zirela, Donibane Lohizuneko taberna batean gelditu zirela muga zeharkatu aurretik, trago batzuk hartzeko. Taberna horretan, ‘errefuxiatu politiko’ deritzoten horietako batzuk zeuden, mozkor-mozkor eginda. Iritsi berriak espainiarrek zirela ikusi zutenean, ‘errefuxiatu politikoak’ irainka hasi zitzaizkien, eta elkar joka hasi ziren. Liskarraren larria ikusita, esku hartu beharrean izan ziren han zeudenak. Lokala ixtea erabaki zuen tabernaren jabeak. Kalera irtenda zeudela, elkar joka jarraitu zuten batzuek zein besteek, eta, lekukoetako batek esandakoaren arabera, jipoi handia jaso zuten hiru gazte espainiarrek”.

Erasotzaileak identifikatzen ditu albisteak, eta adierazten du egunkaria bera dela informazioaren iturburua. Adierazten da erasotzaileen taldean zeudela, “gure iturrien arabera beti, CEFERINO AREVALO, El Ruso goitizenekoa, ETako kidea eta Frantzian errefuxiatu berria, Gasteizen soldaduzka egiten ari zela Ejertzitotik desertatu ondoren; MANUEL MURUA, El Casero goitizenekoa; PRUDENCIO SUDUPE, El Pruden goitizenekoa, seminarista ohia; JESUS DE LA FUENTE, Frantziara ihesean iritsi berria, bolborategitik lapurtutako dinamita garraiatzeko Eustaquiok<sup>17</sup> erabili zuen kamioiaren gidari izan ondoren, eta SABINO ACHALANDABASO, Savin goitizenekoa. Azken hori izan zen, hain justu, kazetari frantsesaren itxurak eginez, “Txikiaren” agindu eta jarraibide guztiak jaso eta erakundeari jakinarazten zizkiona Don Felipe Huarte jauna bahitu zuten denboran”.

Kronikaren egileak adierazi zuen Frantziako poliziak bost pertsona horiek deitu zirela deklarazioa hartzeko: “itxura batean, Frantziako polizia zorrotasunez ari da bost gizabanako horiek galdekatzen, lekuko asko adierazi baitute esandako horien eta beste batzuen biktima zirenen unean ikusi zirela bizirik azken aldiz orain desagertuta dauden hiru gazteak”.

16 SEMPRUN, A. “Tres jóvenes españoles. Desaparecidos”. ABC. 1973ko apirilak 22.

17 Eustaquio Mendizabal, Txikia, Poliziaren tiroek hil zuten bi egun lehenago, apirilaren 19an, Bilbon.

---

Amaitzeko, honako hau gaineratzen du: “desagerketa horien gainean hitz egiten da dagoeneko A Coruña, Bilboko, Irungo eta Donostiako kaleetan, eta pentsatzekoa da Frantziako poliziak une batetik bestera kale-ratuko duela gaur zurrumurrueen oihartzunean ekarri ditugun gertakarien bertsio ofiziala”.

Deigarria da “zurrumurrueen oihartzunean” identifikatu zituztela liskar horretan parte hartu zuten pertsonak, eta, informazio horrekin batera, ziur asko polizia-iturrietatik bakarrik lor zitezkeen datuak eman zituztela.

ABC egunkariak ez zuen esan nondik eskuratu zuen informazioa. Testuan “gure iturriak” esaten zaie informatzaileei, baina badirudi Frantziako poliziaren ikerketak izan zirela kronikan azaltzen diren gertakarien iturburua. Kazetariak esaten du, era berean, “lekuko askok” ikusi zituztela bizirik azken aldiz hiru galiziarrek, adierazitako errefuxiatu horien ustezko erasoen biktima zirenean.

Bi egun geroago, kronika-egile horrek berak, egunkari horretan bertan informazio hau eman zuen: “ez dago desagertutako hiru gazte espainiarren berririk”; hala ere, hau errepikatu zuen: “agintari frantziarrek une batetik bestera eman dezakete informazio ofiziala”<sup>18</sup>.

Egiaz, ez da inoiz ere izan Frantziako poliziak gertakarien inguruan eskuratutako informazioaren berririk. Desagerturiko hiru gazteen familiek kereila bat jarri ondoren, sumario bat zabaldu zen 1974. urtean eta, alderdi salatzaileak behin eta berriro eskatu zion arren, sumarioaren instrukzioa egin zuen epaileak ez ziren ikerketa judizial bat abiatzeko eskatu Frantziako agintari judizialei<sup>19</sup>.

### 3.3. LA VANGUARDIA ESPAÑOLA, 1973ko apirilak 29

La Vanguardia Española egunkariak, 1973ko apirilaren 29ko alean, “Ez dago Frantzian eraso dituzten hiru galiziarren berririk” izeneko kronika kaleratu zuen, eta beste bertsio bat eman zuen.

ABC egunkariak gertakarien kontakizun zehatza eta xehetasun handikoa egin zuen eta, adierazi dugun moduan, horien egileen berri eman zuen, baina egunkari katalanak gertakarien kontakizun nahasiagoa egiten zuen.

Bi jipoiaren berri ematen du La Vanguardia agerkariak: horietako lehena hiru galiziarrek Donibane Lohizuneko taberna batean jasotakoa izan zen, eta bestea, geroago jasotakoa, “balizko beste jipoi handi bat, lekukorik gabekoa” izan zitekeen, egunkari horrek esandakoaren arabera.

Testu horretan honakoa irakurtzen da: “jakin ahal izan da eraso egin zietela Donibane Lohizuneko taberna batean. Eraso hori egin izana aitortu du erasoan parte hartu zuen batek, eta aurpegia handitu diegu” hitzekin deskribatu du gertatu zena. Hala ere, La Vanguardia Española agerkariak, honako hau zehazten du aurre-ago: “uste da, hala ere, beste jipoi handi bat eman zitzaizela geroago, leku bazterren batean eta lekukorik gabe, eta litekeena dela galiziarrek hil egin izana jipoi horren ondorioz”<sup>20</sup>

Komunikabide horrek berak esan zuen “Tabernako erasotzaileak, han ziren lekukoaren esanetan, Frantzian errefuxiatutako espainiarrak ziren eta poliziak identifikatuta dituela uste da”.

La Vanguardia Española egunkariak adierazi zuen Jendarmeriak ikerketa bat abiatu zuela, desagertutakoaren familiek eskatu ondoren. Ikerketa horien harian, honako hau gehitu zuen kazeta horrek: “polizia frantziarrek onartu du frantziarren arteko liskar bat izan zela eta oso litekeena dela liskarrean euskal errefuxiatu baten esku hartu izana, baina hiru itsasgizon frantziar eraso zituzten, ETAren diruaren kontura lasai asko bizi zirela esan baitzieten hiru horiek beste haiei”.

La Vanguardia egunkariak, hala ere, ñabardura hau erantsi zuen: “kapital honek konfirmatu du beste eraso bat izan zela hori, hiru gazte coruñarrei egindakoa baino lehenagokoa”.

Kronika horrek berak adierazten du ETAko kideek, agian, beste norbaitekin nahastu zutela aduana-agen-tziako langilea, polizia-funtzionarioen batekin edo Guardia Zibilaren aduanetako espezialista-taldeko fun-tzionarioen batekin.<sup>21</sup>

---

18 SEMPRUN, A. “Aún no hay noticias de los tres jóvenes españoles desaparecidos”. ABC. 1973ko apirilak 24.

19 1/74 SUMARIOA, Donostiako Epaitegia.

20 LOGOS “Sin noticias de los tres gallegos agredidos en Francia”. LA VANGUARDIA. 1973ko apirilak 29.

21 LOGOS. Op. Cit.

### 3.4. ABC, 1973ko maiatzak 29

Desagertuak lehenik, ETAk erailak ondoren: panfletoak

Desagerpenaren berri ematen duen hurrengo albiste 1973ko maiatzaren 29an kaleratu zen. ABC egunkariak panfleto batzuen berri ematen du, eta panfleto horiek “ETAri leporatzen diote hiru langile galiziarrek erail izana”. Hau dio informazioak: “Ipar euskal herriko postontzietan banatutako panfletoak dira, langile espainiarrek izenpetutakoak”<sup>22</sup>.

Idatzian, honako hau nabarmetzen du ABC egunkariak: “panfletoek dakarten akusazio-testuaren berri ematen dute Baionako egunkariak eta irratiek”. EFE Agentziaren informazioa zerabilela adierazi zuen egunkariak.

Testu hori bera argitaratu zuen, egun berean (1973ko maiatzaren 29an), La Voz de Galicia agerkariak<sup>23</sup>.

### 3.5. Sud-Ouest egunkaria

SUD-OUEST egunkaria kontsultatu du ikerketa-talde honek, Iparraldeko komunikabide erreferentziala garai hartan, baina ez du panfleto horien aipamenik aurkitu, ez adierazitako egun horretan, ez egun horren aurretik zein ondoren.

Albiste aipagarria den arren, ez dugu aurkitu komunikabide horretan hiru gazte galiziarren desagertuari buruzko informaziorik. Pentsatzekoa zen, hala ere, horrelako albiste batek oihartzuna izango zuela eskualde horretako egunkari salduenaren orrialdeetan. Egiaztatu dugu euskal errefuxiatu politikoen eta ETAren ekintzen gaineko beste albiste batzuk argitaratu zituela egunkari horrek. Hala ere, adierazi dugun moduan, egunkari frantses horretan kontsultatu ditugun aleek, 1973ko martxoaren 25etik 1974ko urtarrilaren 17ra bitartekoek, ez dute desagertuen berri ematen.

## 4. Panfletoak

---

Sei panfleto ageri ditu sumarioaren dokumentazioak. Horien edukiaren zati nabarmenenak adieraziko ditugu hemen. Horien berri ematen da, era berean, Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak epaile instrukzio-gileari igorritako txostenean<sup>24</sup>.

### 1. PANFLETOA (1973 maiatzaren 28aren inguruan)

*Izenburua: “Bi hilabete berririk gabe: hirurogei eguneko laidoa”*

*(...) “ETAko komando batek eraso egin zien, haren buru “Txikiaren” bigarrena zen, Galparsoro izeneko oñatiar bat. Honako hauek ziren komando-kide: MANUEL MURUA ALBERDI “El Casero”; JOSE DE LA FUENTE IRURETAGOYENA; CEFERINO AREVALO IMAZ “El Ruso”; SABINO ACHALANDABASO, “Sabin”; eta PRUDENCIO SUDUPE AZCUE “El Pruden”. Eraso horren ondoren, ez da hiru gazte horien berririk izan”.*

Panfletoko testuak kritikak egiten dizkie gobernuari, elizari, prentsari eta alderdi politikoei. Aldarri hauek egiten ditu: Ez opresio arrazistari, ez diskriminazio etnikoari, ez mespretxuari, burlari eta irainari. Ez dago izenpetuta.

---

22 EFE. “Acusan a la ETA de asesinar a los tres trabajadores gallegos desaparecidos” ABC. 1973ko maiatzak 29.

23 EFE. “Los tres gallegos desaparecidos en Francia fueron asesinados por ETA” LA VOZ DE GALICIA. 1973ko maiatzak 29.

24 Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak epaile instrukzio-gilearentzat egindako txostena, 1974ko apirilaren 29koa. 1/1974 Sumarioko dokumentazioa.

---

## 2. PANFLETOA (1973ko uztailaren 25aren ingurukoa, Santio egunaren inguruan)

---

Izenburua: "LAU HILABETE dira HIRU LANGILE galiziar GAZTEAK gupidagabe erail zituztela".

ADIERAZTEN DUGU:

Ceferino Arevalo "El Ruso" izan zen ETAko komando hiltzailearen burua. (...)Esana du "El Caserio" izeneko lekuan zeudenean, hiru gazteak probokatu zituztela eta eraso egin zietela irteeran.

Biktimak Morris 1.100 autoa erabiltzen zuten, eta orain ETA ari da hura erabiltzen, matrikula faltsuarekin. Hori esan du Pedro Alquiza Leizarretak, "El Quepa" goitizenekoak. Disc-jokeya da eta harro kontatzen du erasoan parte hartu zuela.

Frantziako gobernua txosten bat eskatu zuen, eta polizia frantses batek, ETAREN soldatapekoa bera, idatzi du txosten hori. Guk egin dugun moduan, normahik egiazta dezake albistea, "Mingo" tabernara joanda.

Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES

---

## 3. PANFLETOA

---

Izenburua: Irailaren 24an SEI HILABETE izango dira hiru langile gazte galziarrak Frantzian, "La Lycorne" tabernan, desagertu zirela

"Erailketaren konplize dira agintari frantziarrak, ez baitute gertakariak argitzeko edo errudunak atxilotzeko neurririk hartu, ezta, noski, haiek epaitzekorik ere; bien bitartean, lasai asko dabilta pasieran biktimen auroan, Z-0978-B matrikularekin.

Konplize dira Agintari espainiarrak, ez baitiete agintari frantsesei exijitzen bere herritarrak babesteko, teoriarik 'errefuxiatu politiko' (baina, egiaz, soldatapeko terrorista) diren separatista euskaldunen erasoan aurrean.

Konplize da, era berean, hierarkia katoliko espainiarra, "lan alorreko propagandistek eta propagandista politikoek, gertakari guztiak baliatzen dituztenak demagogia egiteko, baina, orain, isilik daudenak."

Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES

---

## 4. PANFLETOA (7 HILABETE geroago, 1973ko urria)

---

Izenburua: "Erabat konprobatua erailketa".

Hauek dira zehatz-mehatz konprobatutako gertakariak:

"Martxoaren 24ko arratsean gure hiru lagun langileak beren herriko abestiak kantatzen ari ziren LA LYCORNE tabernan, eta ETA erakunde terroristako espainiar talde bat, leku horretan bertan egonda, haiei irainka hasi zen eta isilarazi egin nahi izan zituen, ESPAINIA irainduz eta haiek bortizkeria itzelez kolpatuz.

Jaso zituzten jipoi ikaragarrien ondorioz, larriki zauritu ziren hirurak; erasotzaileen krudelkeriak eta gorrotoak begi bat atera zioten gure lagun horietako bati.

Hori egin bezain laster, ETAko komando horretako kideek, zoritxarrea hain ezagun den PEREZ REVILLA gaiztagin profesionala buru zutela, haiek desagerraraztea erabaki zuten, egindako barrabaskeriaren aztararik ez uzteko, eta ondoren hotz-hotzean erail zituzten eta gorpuak desagerrarazi zituzten."

Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES

## 5. PANFLETOA

---

*Izenbururik gabea (zortzi hilabete, 1973ko azaroa)*

*“Bizikidetzaren nazionalaren historian, GORROTO ARRAZISTAREN GAUA izen tristemak du 1973ko martxoaren 24ak, gau horretan hiru langile galiziar gazte erail baitzituzten, beren herriko abestiak kantatzen zitutelako!, Donibane Lohizuneko herri frantziarreko taberna batean.”*

*Horren eragingarri bakarra GORROTOA izan zen, burugabekeria basatia, hori zatekeen leku hartan zegoen ETako terroristen taldeak egin zieten eraso bortitzaren eragilea. Eraso horren ostean, erasotzaileek hotz-hotzean erail eta **mutilatu** zituzten jipoitutako langileak –“garbitu” egin zituztela esan zuen Tomas Perez Revillak, komando-buruak.”*

*Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES*

## 6. PANFLETOA (1973ko abenduak 24)

---

*Izenburua: “9 hilabete semeak erail zizkietela”.*

*“Abesteagatik, espainiar izateagatik eta langile izateagatik erail zituzten. Miarrizko jokalaria izatera, zinema lizunaren ilaran izatera, separatistak izatera, onik leudeke”.*

*Baina justiziaren irudiak ez du balantza bakarrik ageri.*

*Hor du ezpata ere, hiltzaileentzat.*

*Izenpetuta: TRABAJADORES ESPAÑOLES*

## 7. PANFLETOA (Datarik gabekoa)

---

*Izenburua: “FRANTZIAN ERAILAK hiru langile gazte galiziar, ESPAINOLAK zirela adierazteagatik”.*

*Juan Humberto Fonz Escobedo 28 urte, Jorge Juan Garcia Carneiro, 23 urte, Fernando Quiroga Veina 25 urte. Bortizki eta modu koldarrean erail zituen ETako fanatiko espainiarren talde handi batek 1973ko martxoaren 24an, Donibane Lohizunen (Frantzia)<sup>25</sup>.*

---

<sup>25</sup> Jatorrizko testuan agertzen diren moduan idatzi dira izenak

---

## 5. ABC egunkariko kronikak hurrengo hiletan

---

Espainiako prentsak idatzitako artikuluetara bueltatuta, adierazi behar da une horretatik aurrera, hau da, azaldu ditugun lehen kronika horiek argitaratu ostean, ABC egunkariak eta prentsa idatzian argitaratutako informazio guztiek ETArri leporatu zioten hiru galiziarrek erailtearen eta haien gorpuak desagerraraztea, hala ere, gertakarien bertsio bat baino gehiago kaleratu ziren. Informazio horiek, ordez, ez zuten polizia-ikerketen edo gertakarien azalpen ofizialen berririk eman.

### 5.1. ABC, 1973ko ekainak 1

Alfredo Semprun kazetariak, ordura arte argitaratu zen ildoari jarraituta, izenburu hau jarri zion ABC egunkariko bere kronikari 1973ko ekainaren 1ean: *“Ez da hiru espainiarrak Frantzian non izan daitezkeen jakiteko ikerketa zorrotzik egin”*<sup>26</sup>. Kronika horretan, zabaldu egin zuen Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veigari 1973ko martxoaren 24an ustez gertatu zitzaizkaienari buruzko informazioa.

Datu berriak eman zituen artikulua horrek; izan ere, adierazi zuen hiru gazte horietako batek kolpe hilgarriak jaso zituela liskarrean, haren bi lagunak hil zituztela gertatutakoaren lekukorik izan ez zedin, eta desagerrarazi egin zituztela, galiziarren autoarekin batera.

Artikuluak *“Galparsoro”*<sup>27</sup>, Murua, De La Fuente, Sodupe eta beste batzuei leporatu zien kontatutako ekintzen egile izatea. Kazetari horren esanetan, *“lasai daude, inork ez baitu zorrotz ikertu non, nola eta noiz kendu zituzten gainetik beren biktimen gorpuak. Baina, jakin ahal izan dugunez, eraso jasandako hiruetako batek jaso zituen, gertakarien lekuan, kolpe ezinbestean hilgarriak, eta agerikoa dirudi haren hiltzaileek erail egin zituztela, gerora, haren bi lagunak lekukorik izan ez zedin, eta haien autoarekin batera desagerrarazi zituztela”*.<sup>28</sup>

Gertakarien taberna *“gauaren ordu askotan Donibane Lohizunen, errepidearen ertzean, irekita izaten den edaritegi gutxietako bat”* zela adierazi zen idatzi horretan.

### 5.2. ABC, irailak 8

ABC egunkariak, 1973ko irailaren 8an, Fernando Quirogaren aitari egindako elkarrizketa bat argitaratu zuen. A. Semprun kronistak egin zion elkarrizketa. Hiru gazteak bizirik zeudela esan zioten Fernando Quiroga Veigaren aitari telefono-dei anonimo baten bidez.<sup>29</sup>

Semprunek idatzi zuen ustekabean izan zutela Jaime Quiroga Campok jaso zuen deiaren berri: *“Kasualitatez jakin genuen. Pertsona ezezagun batek aurreko martxoaren 24an desagertutako gazte galiziarretako baten aitaren etxera deitu zuen telefonoz (...)”*

*–“(...)Quiroga jauna al zara, Fernandoren aita? (...)”*

*–Zure semea bizirik dagoela esateko deitzen dizugu –esan zuen gero ahots horrek.*

*–Aizu, baina hilik dagoela esan du Prentsak...*

*–Ez egin kasurik. Zure semea eta haren bi lagunak bizirik daude eta laster jakingo dituzue horien gaineko berri zehatzagoak.”*

*(abuztuaren 13a, goizaldean)*

---

26 SEMPRUN, A. “No se ha investigado rigurosamente el paradero de tres españoles en Francia”. ABC. 1973ko ekainak 1.

27 A. Semprunek idatzitako aurreko kronikan, Galparsoro ez zen erasotzaileetako bat.

28 SEMPRUN, A. Op. Cit.

29 SEMPRUN, A. “Renace el misterio sobre la desaparición de tres jóvenes gallegos en Francia”. ABC. 1973ko irailak 8.



### 5.3. ABC, 1973ko abenduak 27 eta 26

Kronika hori eta aurreko egunekoa izan dira gerora egindako kazetaritza-lanen erreferentzia.

Zehazki, ABC egunkariak A. Semprun kazetariaren sinadurarekin 1973ko abenduaren 27an argitaratu zuen informazioa izan da, ordutik aurrera, kazetaritza-lanek hiru galiziar desagertuen kasuaren gainean informatzeko erreferentzia.

Argitaratu zituen datuen eta informazioaren xehetasunei begiratuta, kronika zabal horrek jauzi kualitatibo handia eman zuen. Egunkari madrildarraren "iturri propioak" dira informazioaren sorburu. Idazkera interpretatiboa baliatzen du, eta adjektibo ugari darabiltza ustezko gertakarien berri emateko.

Tomas Perez Revillari egotzen zaio "garondoan tirokatzea bi biktima babesgabe (Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga) bere 'Firbird' zitalarekin, eta ondoren haien gorpuak Sarre etxaldearen inguruan lurperatzea, erakundea etxalde hori ustiatzen ari baita Saint Palais inguruan"<sup>30</sup>.

Horrez gainera, Jose Humberto Fouz Escobero erail izana egotzen dio Semprun kazetariak Perez Revillari, eta, ondoren, egoera horiek erakundean zer eragin izan duten azaltzen du kazetariak. Kronikaren egileak honako hau idatzi zuen ustezko erailketen gainean: "oraindik gehiago handitu dute, hori posible baldin bada bederen, erailtzaileren artean zeuden desadostasunak, Polizia espainiarrak 'Txikiaren' abentura kriminalak amaiarazi ondoren"<sup>31</sup>. (...)Ezin zuten doilorkeria absurdu horrekin ados egon Anai-Arteakoek, haren presidente Telesforo Monzonek ordezkaturik, ezta aurrez adierazitako 'Embatako' gainerako kideek ere".

Aurreko eguneko kronikan<sup>32</sup>, honako hau idatzi zuen Semprun kazetariak: "orain hilabete batzuk esan ziguten hura berretsi dute gure informatzaileek. Hiru gazte galziarrak, Jose Humberto Fouz, Fernando Quiroga eta Jorge Juan Garcia, Madrilén magnizidio itsusi hori egin zutenen biktima izan ziren"<sup>33</sup>.

Azaltzen du hiru horietako bat Donibane Lohizuneko "Garni" tabernan hil zela liskarrean, Miarritzetik itzultzen ari ziren unean "ETAren soldatapeko 8 pistolari, mozkor-mozkor eginda, haiei irainka hasi ondoren, etorri berriak ziren hirurak gure nazionalitate berekoak zirela konturatu zirenean. Galiziaren adoretsua eskuineko parietala txikitu zion botilakada baten ondorioz hil zen, entzefalo-masa ugari galdu ondoren".

Kronika-egilearen hitzetan, beste biak "bahituta izan ziren egun batzuetan erakundeak Saint Palais herrian duen etxaldean, eta haiekin zer egin ez zekitenez, gertatutakoari buruzko arrasto guztiak ezabatu nahi izan zituzten agintari frantziarrek horren berririk ez izateko, eta haiek exekutatzeko erabaki azkarra hartu zuen Tomas Perez Revillak"<sup>34</sup>.

Semprun kazetariak adierazi zuen Tomas Perez Revillak "berak" tirokatu zituela garondoan, eta hark erabaki zuela gorpuak inguruan lurperatu eta desagerraraztea. Semprun kazetariaren kontakizunak esaten du Donibane Lohizuneko badiara bota zutela Humberto Fouzen gorpua martxoaren 25eko egunaren goizaldeko lehen orduetan, hura erail eta ordu gutxira. Zehaztasun hau eman zuen: "ETAren jabetzako ontzi bat erabili zuten, Baionan matrikulatua dagoena 1694 zenbakiarekin eta 'Dragón' izena margotuta daramana". Beste xehetasun hau ere eman zuen: "Lucio Ochoantesana, 'Luken' izenez ezaguna, izan zen, jaso genituen informazioen arabera, gazte galziarraren gorpua itsasoaren erdira bota zuena."

Berriz ere abenduaren 27ko kronikara bueltatuta, Semprunek aitortzen eta kritikatzeko du agintari frantziarrak beste kasu bat ikertzen ari dela, "hiru marinel frantziarrena". Txosten honetan bertan, lehenago, adierazi dugun moduan, La Vanguardia egunkari espainiarrak eman zuen horren berri.

ABC egunkariko erredaktoreak azaltzen du dena Fouz hil zen lehen liskar harekin hasi zela, eta krimen hori tapatzeko, bere bi lagunak "garbitu" behar dituztela. Ildo horri jarraituta, honako hau idatzi zuen: "gertatutakoaren berri zabalduko zen lehenago edo geroago, eta edozein unetan irits zitezkeen frogak edo lekukotzak agintari frantziarren eskuetara, nahiz eta, momentuan, 'hiru marinel frantziarren' kasua-

30 SEMPRUN, A. "La reaparición de Francisco Iturrioz en la escena 'Etarra' inicio de la grave escalada en la violencia. El asesinato de los tres jóvenes gallegos continua impune." ABC. 1973ko abenduak 27.

31 Polizia espainiarrak Algortan, 1973ko apirilaren 19an, egindako tiroen ondorioz hil zen Eustaquio Mendizabal.

32 SEMPRUN, A. "Ha surgido una posible pista en Alsasua: el conductor de un camión pudo haber sido obligado a desviarse de su ruta por uno de los terroristas". ABC. 1973ko abenduak 26.

33 1973ko abenduaren 20an Carrero Blanco hil zuen atentatuaz ari da.

34 SEMPRUN, A. Op. Cit.

---

ren 'agerpen' unekoarekin lanpetuta dauden ikerketa funtsik gabeko batean, gertaera hori lekukoen buru beldurtuak asmatua baita, Donibane Lohizuneko "Garni" tabernarentzat lan egiten duten zerbitzariak eta emakumeak guztiak. ETaren soldatapeko pistolari mozkorrek taberna horretan erail zuten, hain justu, A Coruñan jaiotako gure herrikidea".

Honako hau gaineratu zuen, polizia frantziarrari egindako kritika amaitzeko: "Frantziarrek, eta, berariaz, bulego ofizial paristarrek, ez dute konplikaziorik nahi eremu horretan, baina hainbat faktorek urra dezaketenez lasaitasuna eremu horretan, M. Marcellinek zuzentzen duen segurtasun-indar efizienteak bere historian egin duen polizia-ikerketa funtsik gabekoenari eutsi diote"<sup>35</sup>.

Agintari frantziarrei kargu hartzeko arrazoiak ematean, Interpol erakundeak Vienan egin zuen urteko kongresuan "Frantziako Barne Ministerioaren kolaboratzaile zuzenetako batekin" izan zuen elkarrizketaren berri ematen du kronikaren egileak. Oraingoan "irudipenak dira, adiskide estimatu hori. Irudipenak eta ez besterik...". Hori esan omen zion kolaboratzaile horrek kazetariari, desagertuen kasuaren gainean egin bide zizkion galderei erantzuteko.

Agerikoa da artikulua horrek datu oso zehatzak ematen dituela, eta, ziur asko, polizia berak edo poliziaren konfidenteek soilik eman ditzaketela xehetasun horiek. Deigarria da "eskuineko parietala txikitu zion botilakada baten ondorioz hil zen, entzefalo-masa ugari galdu ondoren" hitzak erabiltzea, auzitegi-medikuek darabilten hizkuntza baita, eta deigarria da, era berean, Revilla biktimen aurka ustez erabili zuen armaren marka zehaztu izana.

Nabarmentzeko datua da, era berean, lehen aldiz hitz egiten duela desagertutako gazteen autoari buruz.

Perez Revillak hiru gazte horietako bi noiz eta nola hil zituen frogatzeko eskatzen dio kazetariari polizia frantziarrari, eta argitzeko nola eta noiz bota zuen, ustez, Lucio Ochoantesak hirugarren gaztearen gorpua 'Dragón' ontziko kareletik Donibane Lohizuneko badiara. Era berean, "hiru coruñarren autoa ekainean zer mekanika-tailerretan desegin zuten" aurkitzeko eskatzen die Frantziako polizia-agintariei.

Kazetariaren esanetan, "jokabide zuhurra ez den arren, ibilgailu hori erabiltzen jarraitu zuten aste askotan, matrikula aldatuta. Baina, arriskua sumatu zutenean, erabat desegiteko agindu zuten"<sup>36</sup>.

Kronikak esparrua zabaltzen eta gertakari horiek "girokoen artean" sortu zuten hausturaren berri ematen du. Semprunek ziurtatu zuen bilerak edo asanbladak egin zirela –horiek egin ziren lekak eta egunak adierazten ditu—. Eta adierazten du desadostasunak sortu zirela bi talderen artean: Monzón, Txillardegia eta aita Larzabal zeuden lehenengoan, eta "erabat gaituta" omen zeuden; bigarrenengoan, berriz, Pérez Revilla, Mugica Arregui eta Zabalde Romero, 'El Cabra' goitizenekoa zeuden, eta "literatura gutxiago eta ekintza gehiago" eskatzen zuten.

Semprunek, informazio trinko eta, sarritan, nahasi hori amaitzeko, Eustaquio Mendizabalen heriotzaren gaineko komentario bat egiten du<sup>37</sup>. Iruzkina horretan iradokitzen du ETAn konfidenteak infiltratuta zeudela izan zela posible hura hiltzea, eta baita informazio-emaileak izan zirelako. Itxura batean, kronika-egileak azken horiek baliatu zituen artikulua idazteko.

Argudiatu zuen ETako militantearen heriotzak "agerian utzi zuela 'hain berezia den giro horretako' pertsonen artean errotutako traizioa, askoren ustez hurrengo hilabeteetan ere agerian geratu dena, gure poliziak ekintzetan nola asmatu duen ikusita."

Gertakari bertsio berri horretan, Semprunek ez zituen aipatu 1973ko apirilaren 22ko artikuluan eman zituen izenak (Ceferino Arevalo, Manuel Murua, Prudencio Sudupe, Jesus de la Fuente eta Sabino Achalan-dabaso), eta Tomas Perez Revillari leporatzen dio, zuzenean, hiru gazteak hil izana.

---

35 George Pompidouren Gobernuaren barne-ministroa.

36 Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusiaren txosten bat dakar 1/1974 Sumarioak, eta honako hau adierazten du: "Adierazi behar da ez dela egia Austin 1300 autoak Z-0978-B matrikularekin zirkulatzen duenik". Hori esaten du desagertutako hiru gazteen ibilgailuaren gainean. Honako hau dio "Dragón" izeneko ontziari buruz: "ez da ezaguna ETaren jabetzako ontzia erabili denik gazte galiziarren ustezko erailketan".

37 1973ko apirilaren 10ean hil zen, Algortan, Poliziaren tiroen ondorioz. Ihes egitea lortu zuen Peixotok.

## 5.4. ABC, 1974ko urtarrilak 3

Prentsak 1974. urteko urtarrilean ekarri zuen berriro kasua bere orrialdeetara. Hilaren 3an, ABC egunkariak argitaratu zuen Quiroga, Fouz eta Garciaren gurasoak Donostian zeudela, beren semeen desagerepenaren gaineko salaketa aurkezteko hiri horretako Instrukzio Epaitegian<sup>38</sup>. Bederatzi hilabete ziren igaroak desagertu ziren egunetik, martxoaren 24tik.

Egun bat geroago, 1974ko urtarrilaren 4an, La Voz de Galicia egunkariak elkarrizketa bat egin zien Donostiako Galiziako Etxean Jaime Quiroga Camposi eta Julio Garcia Souzari, Fernandez eta Jorgeren aitak, hurrenez hurren. “Gure semeen gorpuak nahi ditugu gutxienez, geure lurrera eraman eta han lurperatzeko” esan zion Quirogak kazetariari.

“Egunkariak argitaratu duena dakigu guk, ez gehiagorik” esan zuten. Alde horretatik, deigarria da ikustea bi aita horiek elkarrizketan zehar eman zituzten erantzunek hitzez hitz errepikatu zutela Semprunek 1973ko abenduaren 27ko kronikan eman zuen bertsioa<sup>39</sup>.

## 5.5. ABC, 1974ko urtarrilak 5

CIFRA agentziaren informazioa baliatuta, Donibane Lohizunen Tomas Perez Revilla atxilotu zutela argitaratu zuen ABC egunkariak 1974ko urtarrilaren 5ean. “Baionara eraman dute ETaren V. Asanbladako Fronte Militarreko burua, deklaratzeko”<sup>40</sup>. Kronikak esaten du hau gerta daitekeela: “polizia Perez Revillarekin izango da hura espetxera eraman ondoren, Bordeletik gertu egin zen prentsaurrekoan gertatutakoa argitu dezan”<sup>41</sup>.

Albisteak ez du Perez Revillak hiru gazte galiziarren ustezko erailketarekin eta desagerepenarekin izan zezakeen loturaren gainekorik aipatzen. Hemen ikusi dugu, ordea, egunkari horrek hiru ustezko erailketen egiletzat jo zuela atxilotutako pertsona hori.

## 5.6. ABC, 1974ko urtarrilak 6

CIFRA agentziak zabalduetako informazio bat argitaratu zuen ABC egunkariak urtarrilaren 6an. Albiste horrek jakinarazi zuen ETA erakundearen mehatxu-gutunak iritsi zitzaizkiela Galizian jaio baina Bizkaian bizi ziren hiru pertsonari. Hiru pertsona horiek Guardia Zibilari eman zioten horren berri. Informazio horren arabera, hau zioen testu idatziak: “Zorioneko zara zeurea ez den lur honetan jateko aukera duzulako. Ez zaitez, gainera, nagusitzen saiatu, ez duzu lortuko-eta. Hirurekin nahiko izan ez baduzue, hirurehun izango dira laster. ETA”. Eta ‘Euzkadi Ta Askatasuna’ zigilua darama, tinta morez<sup>42</sup>.

## 5.7. ABC, 1974ko urtarrilak 8

Urtarrilaren 8an, Madrilgo egunkarian izenpetutako informazio baten bidez, Alfredo Semprunek jakinarazi zuen Jose Saile izeneko hiritar frantziarra hil zutela Baionan “orain hilabete batzuk Galiziako hiru gaztek jasanez erasoaren oinarrian zeuden arrazoi berberengatik, ETako kide zenbaiten hitzezko erasoer aurre egin ondoren, Baionan”.

Informazioak zehazten du ustezko biktimak Parrecou kalean topatu zituela “ETako kide batzuk, Espainiako Gobernuaren presidentearen aurkako atentatuan nolabait parte hartu izanaz harro ageri zirenak”<sup>43</sup> eta ho-

38 CIFRA. “Demanda judicial por la desaparición de los tres jóvenes gallegos”. ABC. 1974ko urtarrilak 3.

39 Erredakzioa. “La Misteriosa desaparición de los tres jóvenes gallegos cerca de San Juan de Luz”. LA VOZ DE GALICIA. 1974ko urtarrilak 4.

40 EFE. “Tomás Pérez Revilla, alto jefe de la ETA, detenido en San Juan de Luz”. ABC. 1974ko urtarrilak 5.

41 ETAK 1973ko abenduaren 20an Carrero Blanco almirantearen aurka Madrilan egin zen atentatu hilgarriaren egiletza bere gain hartzeko prentsaurrekoaz ari da.

42 CIFRA. “ETA amenaza a tres gallegos residentes en Vizcaya”. ABC. 1974ko urtarrilak 6.

43 SEMPRUN, A. “Muerto por elemento de la E.T.A. en Bayona”. ABC. 1974ko urtarrilak 8.

---

rei aurre egin ziela, ETArek jarduna kritikatu. Semprunek informazio horretan esaten du arrazoi horregatik joan zela talde hori, tabernaz taberna, hiritar frantziarraren atzetik, jipoi bat eman ziotela kalean eta, ordu batzuk geroago, ospitalean hil zela, jipoiaren ondorioz. Semprunek gaineratu zuen Frantzia ez dela gertara horren gaineko informaziorik argitaratu.

## 5.8. ABC, 1974ko urtarrilak 10

Hil horren beraren 10. egunean, iturri fidagarriak aipatu zituen Semprunek, Jendarmeriak Tomas Perez Revilla “nazionalitate frantseseko emakume gazte bat bortxatu izanaren akusazio formalarekin”<sup>44</sup> atxilotu zuela jakinarazteko, eta ez Errefuxiatu Estatutuaren betebeharrak urratzeagatik edo konfinamendutik ihes egin izanagatik.

Harrigarri da, beste behin, kronika-egile horrek ez eguneratu izana informazio horretan bertan A Coruña hiru gazteen desagertuaren kasua.

# 6. Coral Rodriguezen borroka

---

Humberto Fouz Escoberoen ilobak osabaren oroitzapen urruna du, neskato bat baitzen hura desagertu zen unean. Galera horrek markatutako familia batean hazi da Coral Rodriguez, eta ez dute erakundeen eta gizartearen babesik sentitu denbora horretan guztian.

“Isiltasunaren horma urratzea, iritzi publikoari gogoraraztea eraiketa horiek” eta bere osaba eta bere bi lagunak aurkitzea izan ziren Coralen helburuak gertakariak argitzeko borrokari ekin zionean<sup>45</sup>.

## 6.1. Galdera Senatuan Mayor Orejari 1999ko martxoaren 24ko osoko bilkuran

Coral Rodriguez PSE alderdiko senatari sozialista zen garaian, Senatuko osoko bilkurara eraman zuen kasua, eta, horren ondorioz, berriro itzuli zen komunikabideetara Humberto Fouz, Fernando Quiroga eta Jorge Juan Garcia coruñaarren kasua, urte askotako isiltasunaren ondoren. Senatuan, desagertutako hiru gazte galziaz arretatik galdetu zion Rodriguezek Jaime Mayor Oreja ministroari. Barne ministroak bere gain hartu zuen “desagertu horiek eta Perturrena ikertzeko konpromisoa”<sup>46</sup>.

Bi urte lehenago, 1997ko irailean, Coral Rodriguezek Barne Ministerioarekin jarri zen harremanetan, Eduardo Moreno Bergaretxe zenaren gorpua egon zitekeen hilobi bat agertu baitzen Biriatuan. Coralek hau esan zion El País egunkariari: “hiru hilotz zeudela esan zen, eta guk pentsatu genuen nire osaba eta bere lagunak izan zitezkeela, eta ni ikerketen gainean informatuta edukitzeko eskatu nion ministroari”<sup>47</sup>. Ez zitzaion azalpenik iritsi, eta Coralek, urte batzuk geroago, berriro jo zuen Barne ministroarengana, baina parlamentu-galdera baten bidez oraingoan.

Rodriguezek Senatuan egin zuen interbentzioaren kazetari-informazioaren arabera, hau esan zuen Coralek: “eskandalagarria da garai hartan sumarioa ikertu ez izana”<sup>48</sup>.

“Familiek ez zuten baliabiderik, ez zekiten nora jo. Istripu bat izan zitekeela esan zieten eta autoa amildegiaren batetik eror zitekeela” azaldu zuen Rodriguezek Senatuan<sup>49</sup>.

Honako hau esaten du 1999ko martxoaren 25eko kronika horrek berak: “desagertu gertatu eta bederatzi

---

44 SEMPRUN, A. “Pérez Revilla, detenido por violación”. ABC. 1974ko urtarrilak 10.

45 RUIZ, ANA. “Una senadora del PSE pregunta a Mayor por la muerte de tres jóvenes en 1973 supuestamente a manos de ETA”. EL PAÍS. 1999ko martxoak 25.

46 RUIZ, ANA. Op. Cit.

47 Azkenik, hiru emakumeren gorpuak zirela egiaztatu zen.

48 RUIZ, ANA. Op. Cit.

49 RUIZ, ANA. Op. Cit.

hilabete baino igaro ez zirela, senideek kereila kriminal bat aurkezteko bultzada izan zuten, Madrilgo egunkari batean argitaratutako informazio baten ondorioz". Era berean, 1973. urtean argitaratutako albiste horrek esaten du ETako kide batek eman zuela erakundeak hiru gazteen heriotzan izan zuten partaidetzaren berri. Horrela adierazi zuen kazetariak: "Albiste haren esanetan, etarra batek kazetariari esan zion ETAk erail zituela hiru mutil haiek, kaleko jantziak zeramatzen polizia espainiarrak zirelakoan".<sup>50</sup>

Madrilgo egunkari hori, ziur asko, ABC izango da, eta zehazki, 1973ko abenduaren 27ko kronikaz ariko da. Hori horrela izan bazen, nabarmendu behar da kronika horrek ez duela ETako iturririk aipatzen; aitzitik, kazetariak iradokitzen du, txosten honetan azaldu dugun moduan, informazioen iturri poliziaren informatzaileak, konfidenteak edo ETaren barnean gertatutako "traizioak" izan daitezkeela.

Honako hau idatzi zuen Alfredo Semprun kazetariak:

"Errealitatea gailendu zen. Hazparneko bileran bertan, behatzaileek argi eta garbi ikusi zuten ETA ez zela, ordurako, "Yulen" Madariagak, Alvarez Enparantzak eta enparauek eraturako hura, haren aurpegi odoltsua eta pistola mehatxariak baino ez zirela geratzen, eta inork ere ezingo zituela menderatu, beren zoroan".<sup>51</sup>

## 6.2. Legez besteko proposamena Eusko Legebiltzarrean, 2005eko otsailak 3

Coral Rodriguez, PSE alderdiko legebiltzarkidea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordean agertu zen, eta legez besteko proposamen bat abiatu zuen, hau eskatzeko Eusko Legebiltzarrari: "ETak desagerrarazi dituen pertsonen hilotzak aurkitu eta identifikatzeko neurriak abiaraztea"<sup>52</sup>. Onartu egin zen ekimena.

Coralek jakinarazi zuen gorpuak, zantzuen arabera, Saint Palais herriko baserri batean egon zitezkeela lurperaturik.

Hiru alderdiko Jaurlaritzak (PNV, EA, IU), hasiera batean, osoko zuzenketa batekin erantzun zion proposamen horri. Baina, PSEko legebiltzarkidearen interbentzioaren ondoren, atzera egin eta babestu egin zuen proposamen sozialista.

Coral Rodriguezi mingarri egin zitzaion testu alternatiboaren hotsasuna, eta kritikatu egin zuen, "burla" bat iruditzen zitzaiolako.

Garai hartan Eusko Alkartasunako bozeramaile zen Rafael Larreinak, hirukoaren izenean, behin baino gehiagotan eskatu zion barkamena Coral Rodriguez legebiltzarkideari, hizkera oso administratiboa erabili zutelako beren zuzenketa.<sup>53</sup>

J. Pagolak idatzi bat argitaratu zuen ABC egunkariak 2005eko otsailaren 2an argitaratu zuen alean, eta idatzi horrek Coral Rodriguezek Eusko Legebiltzarrean egin zuen interbentzioaren berri ematen du. Honako hau gaineratu zuen: "Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen zuzendariak, Chema Urquijok, bere gain hartu zuen, lehen ekinbide moduan, krimenaren egile gizarteratu baten lekukotza jasotzeko konpromisoa. Coralek berak bi gutun idatzi zizkion pertsona horri<sup>54</sup>, gizatasun keinu bat erregutzeko".<sup>55</sup>

J. Pagolak egindako erreportajearen zenbait kritika egiten dira, Frantziak ez zuelako "inolako" ikerketarik egin eta Espainiak ezer gutxi egin zuelako. Kazetariaren esanetan, "1974. urtean Jesus M<sup>a</sup> Zabarte Arregui pistolaria galdekatzera mugatu zen ikerketa. (...)Zabartek esan zuen gazte galiziarren gainean galdetu ziola Perez Revillari. Erakundeko buruak erantzun omen zion ez zela horri buruzko ezer jakiterik komeni."

Bilboko Ospitalean, zauriturik eta eskuineko eskua igeltsuz estalirik zuela, egin zuen deklarazio hori Jesus M<sup>a</sup> Zabartek, eta, gerora, hainbat artikulutan hala nola El Mundok 2001eko ekainaren 17an eta La Opinión

50 RUIZ, ANA. Op. Cit.

51 SEMPRUN, A. "La reaparición de Francisco Iturrioz en la escena 'Etarra' inicio de la grave escalada en la violencia. El asesinato de los tres jóvenes gallegos continua impune.". ABC. 1973ko abenduak 27.

52 EFE. "La emoción de una diputada del PSE-EE logra el consenso de la Cámara vasca para aprobar una iniciativa". EL MUNDO. 2005eko otsailak 3.

53 EFE. Op. Cit.

54 Manuel Murua Alberdiz ari da.

55 PAGOLA, J. "La granja de los horrores de ETA" ABC. 2005eko otsailak 2.

---

A Coruña 2017ko apirilaren 24an argitaratutakoetan, esan da datu argigarria dela hori, Perez Revilla eta ETako beste kideak desagertuaren eta erailketaren egile izan zirela adierazten duelako.

1/1974 Sumarioak dakar galdeketa dokumentazioa, Jesus Maria Zabartek egindako deklarazioaren aktari dagokion ziurtagiria, hain justu, eta 1974ko maiatzaren 18ko data duena. Galdeketa irailaren 8an, urriaren 1ean, urriaren 3an eta urriaren 22an egin zitzaizkion, Bilbon, Generalísimo Franco ospitale zibilean.

Hau esaten du aktak, hasieran: “minez dago zauriak jasan zituen hankan, baina egoera onean dago egiten zaizkion galdera guztiei erantzuteko, eta prest dago haiei normaltasun osoz erantzuteko”.

148. folioa.- GALDETU ZAIO.– Azaltzeko non dauden martxoan muga igaro eta oraindik ageri ez diren hiru gazte “galziarrak”, eta honako hau adierazi du: Galiziar horiek Hendaiara egin zuten bisitaren ondoren, egunkariak argitaratu zuten ETA erakundeak hil eta desagerrarazi zituela; deklarazio egileak esan du, erakundearen barruan zela horiek argitaratu zirenean, baina esan du ez zekiela ezertxo ere horri buruz eta TOMAS PEREZ REVILLARI horren gainean galdetu zionean, honako hau erantzun ziola: “ZENBAT ETA GUTXIAGO JAKIN HORRI BURUZ, HOBE”,

“Esku ezkerre erabili du deklarazioa izenpetzeko, zaurituta eta igeltsuz estalia baitu eskuinekoa”<sup>56</sup>.

## 7. *El Mundo* egunkariaren erreportajeak

---

### 7.1. A. Rojo, 2001eko ekainak 17: *El crimen más oculto de ETA*

2001. urtean, *El Mundo* egunkariako Crónica astekariak *El crimen más oculto de ETA*<sup>57</sup> izeneko idatzia argitaratu zuen. Alfonso Rojo kazetari ezaguna izan zen haren egilea. Artikulu horrek osatu du hiru gazte galiziarren desagertuaren gainean orain arte eman den bertsiorik interpretatiboena. Krimena gertatu zen lekuan egonda soilik jakin zitezkeen xehetasunekin deskribatzen du Rojok coruña horiei gertatutakoak. Hala ere, kronikaren egileak ez du informazio horien iturririk zehazten, eta lanaren amaieran soilik egiten ditu informazio horien sorburuen gaineko zenbait iruzkin labur eta lauso. Gertakarietan ustezko partaidetza izan zuen pertsona baten komentarioak, ETako kide ohi batek argitaratutako memoriak eta ETAn infiltratu zen pertsona batek esandakoak baliatu omen zituen.<sup>58</sup>

Artikulu horretan esaten du Tomas Perez Revilla eta beste lau pertsonak nahastu zituztela hiru galziarrak kaleko arropaz jantzitako polizia espainiarrekin. 1974ko martxoaren 24an gertatu zen hori, Donibane Lohizuneko errepede-taberna batean (La Lycorne).

Rojoren esanetan, errefuxiatuak haien zain geratu ziren, parkinean. Leku horretan, botilakada bat eman zioten Humbertori garunean, eta, eskuak lotu ondoren, bi kotxetako maletategietan sartu zituzten. Gazteen Austin autoa zen horietako bat. Aparkaleku horretatik La Sarra etxaldera eramane zituzten, Saint Palais herrian. Torturatu, erail eta lurperatu egin zituzten. Rojo adierazi zuen Perez Revillak tirokatu zituela hiru biktimak garondoan.

Lehen esan dugun moduan, kazetariak ez du bere esanak eta akusazioak bermatzeko iturbururik aipatzen; hala ere, idatziaren atal jakin batean, A. Semprun kazetariak ABC egunkarian argitaratutako artikulua du hizpide eta honako hau esaten du: “Zuzen zebilen funtsezkoan, tabernaren izena eman eta hiltzaileen gainekoak aipatu zituenean”<sup>59</sup>. Hala ere, tabernaren izena ez da orduan emandako bera.

---

56 Donostiako Plazako Epaitegi Militarraren idazkariak 1/1974 SUMARIOAN egindako deklarazioari dagokion aktaren ziurtagiria.

57 ROJO, A. “El crimen más oculto de ETA”. CRÓNICA (EL MUNDO). 2001eko ekainak 17.

58 “Mikel Lejarza, urteetan ETAn infiltratuta egon zen Lobo mitikoak, bere memorietan adierazten du Perez Revillaren eta Peixotoren arteko elkarrizketa bat entzun zuela, “Iparraldean kamuflaturik zebiltzan” hiru galziarrak hizpide zituztela.

Agur ETA izena du Soares Gamboa damutuaren autobiografiak, eta etakide izandakoak, lan horretan, adierazten du galziaren gorpuak gehitu behar zaizkiola ETaren biktimen zerrenda luzeari, “lurperatuak izan ziren, mendiren batean akaso, garoak bestela baino altuago hazten diren lekuan”. Aipua: ROJO, A. “El crimen más oculto de ETA”. CRÓNICA (EL MUNDO). 2001eko ekainak 17.

59 ROJO, A. Op. Cit.

Erreportajearen aipatzen dira, alde batetik, Irungo komisaldegiko atestatua –hor jarri zuen salaketa Cesareo Rodríguezek, Humberto Fouzen koinatuak, 21 egun geroago–, eta sumarioa bestetik, Donostiako epaitegi batean “hondoratua”. Esaten du familiak ez zuela ezeren berririk eta horrek harriturik zeuzkala, prentsa espainiarrean eta frantziarrean argazkiak argitaratu zirelako. Adierazten du “deigarria” zela sumarioaren laburtasuna eta baliatzen zituen egunkari-zatien ugaritasuna.

Rojok esaten du Bidarteko irteeran gertatu zela dena, orduko Lycorne tabernan (gerora, Pakakolo izena jarri zioten lokalari). Garai hartako jabeak, Jean Pierre Bernateau jaunak, ez zuela ezertxo ere gogoratzen zin egin zion kazetariari: “Aparkalekuan izango zen; barruan ez genuen liskarrik ametitzen”.<sup>60</sup>

Alfonso Rojok adierazi zuen Revilla izan zela krimenaren egile, eta harekin batera Ceferino Arevalo, El Ruso goitizenekoa, Prudencio Sodupe, Pruden goitizenekoa, Jesus de la Fuente Iruretagoyena, Basacarte eta Manuel Murua, El Casero”.<sup>61</sup>

Kronika-egileak Logroñoko espetxean topatu zuen Murua. Harekin izan zuten elkarrizketaren berri ematean, Rojok esaten du “gertatutakoak ukatu zituela hasieran”. “Aurrerago, onartu zuen Humbertoren ilobaren eskutitza jaso zuela eta bere osabaren hilotza topatzeko laguntza eskatu ziola, baina, horren berri izanda, Mikel Sueskunek (...) ezer ez esateko aholkatu ziola” kontatzen du El Mundo egunkariko kazetariak.

Manuel Murua hilik dago, eta ezin da informazioa kontrastatu. Hala ere, honako hau ziurtatu digu Coral Rodríguezek 2017ko urriaren 19an, ostegunetz, telefono-elkarrizketa batean: “Manuel Murua Alberdiri idatzit nion Logroñoko espetxera, baina ez zidan erantzun”.

Erreportajearen azken zatian, Manuel Muruarekin izandako elkarrizketa laburraren amaiera kontatu zuen Alfonso Rojok:

*“Ez dut galiziarren berririk”, esan zuen Muruak marmarrean. Agintzen dutenei galdetu behar zaie hori. Martini eta Martini artean, eta beti baldintzazko esaldiak erabilia, iradoki zuen, baldin eta bahitu egin baldin bazituzten, hantxe bilurtuko zituztela, aparkalekuan. Eta galdekatu egin izan balituzte, gogorra izango zela, baina ez Guardia Zibilak bezala. Eta amaitzeko, La Serra hondeatu eta haien gorpuzkiak topatzeko aukerarik ba ote dagoen galdetuta, ezetz adierazi zuen, hura oso handia delako. Joan aurretik, inork eskatu gabe, esan zuen lurperatu izan balituzte, ubidetik gertu egingo zutela, lurra bigunagoa den tokian”.*<sup>62</sup>

## 7.2. El Mundo, 2005eko ekainak 11: *Los tres gallegos desaparecidos, otro gran misterio de ETA*

Lau urte geroago, Coral Rodríguezek Eusko Legebiltzarrean egindako interbentzioaren ondoren, beste artikulua batzuk argitaratu zituen EL MUNDO egunkariak. Horietako bat 2005eko uztailaren 11n argitaratu zuen.

Egun horretan argitaratutako informazioak ez darama sinadurarik. Madrilen, erredakzioan osatu dela esaten da, eta Alfonso Rojok idatzitakoa errepikatzen da neurri handi batean; hala ere, gazte coruñarrei ustez egin zizkieten torturen gaineko informazioak gaineratzen ditu Artikuluan esaten da Mikel Lejarzak emandako informazioak direla, baina ez da kontrasta daitekeen daturik ematen.

Aurretik argitaratutako kronikek ez bezala, lehen aldiz esaten da Jose Manuel Pagola, Peixoto, izan zela egilea.

Lejarzak “ziurtatu zuen Jose Manuel Pagoagak, Peixotok, kontatu ziola, harro, galiziarren istorioa, torturatu eta hil egin zituztela poliziak zirelako eta horietako bati bihurkin bat sartu ziotela begian”.<sup>63</sup>

2005eko uztailaren 11ko artikulua horretan bertan, hitzez hitz jasotzen dira Jose Sainz poliziak (Poliziaren buru nagusia Bilbon, 1970 eta 1974 bitartean) idatzitako *Testimonios de un policía español* liburuko pasarte batzuk. Liburu horretan Ceferino Arévalo, El Ruso goitizenekoa, bere neskalagun Paquita Aguirreri bidalitako gutunaren pasarte baten berri ematen da. Hau da, ustez, pasarte horrek esaten duena: “Madrilgo egunkariak irakurtzen baldin badituzu (...) ETA aipatzen dutela ikusiko duzu (...) esaten dute nik hil nituela hiru

60 ROJO, A. Op. Cit.

61 ROJO, A. Op. Cit.

62 ROJO, A. Op. Cit.

63 EL MUNDO. 2005eko uztailak 11.

---

mutil horiek, polizia espainiarraren txibatoak zirenak (...) nik esango dizut matraka horren atzean dagoen egia: gezurra da mutil horiek hiltzearena, baina jipoi bat ematearena, hori bai”.<sup>64</sup>

Mikel Lejarza, El Lobo<sup>65</sup> gotizenekoari egindako elkarrizketa bat argitaratu zuen El Mundo egunkariak 2005eko azaroaren 7an.

Infiltratutako agenteak kazetariari esan zion 1974. urtearen amaieran elkarrizketa bat izan zuela Jose Manuel Pagola, Peixoto etakidearekin, eta gazte galiziarren kasuaren gainean “Jose Humberto, Jorge eta Fernando torturatzen eta erailtzen parte hartu zuela aitortu zion Loberi”.

El MUNDO egunkariak horrela idatzi zituen Mikel Lejarzak esandakoak:

*“Hendaiaiko hondartzan geunden eta pasieran ari ginela etorri zen gaia hizpidera. Leku bat seinalatuta, hau esan zion (Peixotok): “Hor lurperatu genituen tipo horiek, polizia galiziarrek. Oso urduri jarri nintzen, (Peixoto) harro esaten baitzituen honelakoak: “Horiek marruak kabroi horienak! Bihurkin batez atera genizkien begiak” Tripak nahastu zitzaizkidan. Aurrerago hilotzak lurpetik atera behar izan zituztela esan zuen. Gau batean atera zituzten hondartatik eta beste leku batean lurperatu zituzten.”<sup>66</sup>*

Elkarrizketa horretan bertan, Lobok ziurtatzen du elkarrizketan horren berri eman ziela bere nagusiei, baina “oraindik ere neure buruari galdetzen diot zergatik ez ote zidaten kasurik egin...”. Hori esan zion El Mundo egunkariari Lejarzak.

### 7.3. Dokumentala. “El crimen más oculto de ETA” I eta II. Egilea: El Mundo TV. Emisioa: A3 telebista-katea

Urte horretan bertan, 2005ean, EL MUNDO egunkariak eta Antena 3 TV telebista-kateak telebistarako bi kazetaritza-lan sentsazionalista argitaratu zituzten. Hiru coruñarren desagerpena kontatu zuten dokumental horretan, berriro ere “El crimen más oculto de ETA” izenburua erabilita. Urte horretako azaroaren 7an eta 24an emititu zituzten, eta gertakariak berritzearekin batera, “gertakarietatik gertu izandako” pertsona elkarrizketatu zituten. El Mundo komunikabideko kameraren aurrean izan ziren Javier Zumalde eta Julen Madariaga etakide ohiak; Jose Amedo polizia ohi eta GAL-eko kide izandakoa; CESID erakundeak Euskadin izandako ordezkaria, Angel Ugarte; ETA erakundearen infiltratu eta CESID erakundeko kide Mikel Lejarza, “Lobo”; La Razón egunkariko Alfredo Semprun (semea) eta Matias Antolin kazetariak; Humberto Fouzen iloba eta arreba, Coral Rodriguez eta Isabel Fouz, hurrenez hurren; eta beste pertsona batzuk.

#### 7.3.1. “El crimen más oculto de ETA” 1. zatia, 2005eko azaroak 7

Erreportajearen Javier Ugarte izan zen lehen elkarrizketatua, CESID erakundeko agente ohi<sup>67</sup>.

Ugartek hau esaten du: “Frantziako konfidenteen bidez iritsi zitzaigun informazio guztia”. Horrez gainera, azaltzen du poliziak Segurako Eguzkiza baserria miatu zuela 1974ko ekainean, eta han Ceferinok ustez Paquita Aguirreri idatzi zion eskutitz bat aurkitu zuela. (0:33’ 40”)

Erreportajeak aurrera egitean, El Mundoko erreportariak Luis Ceitegui elkarrizketatzen dute, 70ko hamarkadan polizia-inspektore izandakoa Bilbon, eta konfirmatzen du eskutitz hori aurkitu zela erregistro horretan. Arevalok Aguirreri idatzitako eskutitzaren edukia jakinarazten du Ceiteguik, oroimen-ariketa bat eginda El Mundoko erreportariarentzat:

“Egunkari batzuetan, ABC eta horrelakoetan irakurri duzuna, gazte galiziar edo espainiar batzuk hil ditugunarena, benetan esaten dizut atsekabetu egin naizela, guk, eta nire hitza ematen dizut, ez ditugu hil, jipoi bat baino ez genien eman, eta ez dakigu beste ezer gainerakoena”. (34’20”-34’45”)

---

64 “Los tres gallegos desaparecidos, otro gran misterio de ETA”. EL MUNDO. 2005eko uztaillak 11.

65 EL MUNDO, 2005eko azaroak 7. Elkarrizketa Mikel Lejarza, “Lobo” agente infiltratuari. “Oso urduri jarri nintzen ‘Peixotok’ esan zidanean begiak bihurkin batez atera zizkietela”

66 EL MUNDO, Op.Cit.

67 [http://www.youtube.com/watch?v=PhUE\\_6SEGYg](http://www.youtube.com/watch?v=PhUE_6SEGYg)



Ceitegui gaineratzen du, ustezko jipoiaren ondoren, Perez Revillak, Peixotok eta “ez dakit beste norbaitek hartu ote zituen” (hau da, beste nonbaitera eraman ote zituzten hiru gazte galiziarrek).

El Mundoren ustez, eskutitz horrek argi eta garbi frogatzen du ETako kideak izan zirela ekintza horien egile. Zehazten du, hala ere, poliziak ez zuela Paquita Agirre galdekatu.

Beasainen aurkitu zuten Paquita El Mundoko kazetariak, eta kamera ezkutu bat erabilita, eskutitzaren gaineko galderak egin zituzten. Ukatu egiten du eskutitz hori jaso zuenik. Baina aurrerago esaten du Ceferino Arevalok gutun bat bidali ziola eta berak bueltatu egin zuela, ez zuelako “ezertxo ere” jakin nahi.

Dokumentalean Matias Antolin kazetariak hitz egiten du, besteak beste. Hark idatzi zuen “*Agur, ETA. El adiós a las armas de un militante histórico (1997)*” lana, ETako kide izandako Soares de Gamboaren biografia. Kazetari horren esanek babestu egiten dute gertakarien gaineko hipotesi nagusia: “Soares de Gamboak esan zidan poliziekin nahastu zituztela edo arrazoi hori ematen zutela, hiru mutil horien heriotza justifikatzeko koartada itsusi moduan. Hark uste du mendian daudela lurperaturik inguru hartan, Frantziaren hegoaldean, Donibane Lohizunen, oso gertu, baina ez du inoiz ere izan datu konkreturik”.

Mikel Lejarzak, Lobok, erreportaje horretan ematen duen lekukotza ez dator bat pertsona horrek El Mundo egunkariari ordura arte eman zizkion elkarrizketetan eman zuen bertsioarekin. Hau esaten du infiltratuak:

“Kontatu zidatenean, oilo-ipurdiko azala jarri zitzaidan benetan. Galiziar batzuk harrapatu zituzten hor poliziak zirelakoan, hil egin zituzten, oso modu itsusian gainera, eta Peixoto zegoen horien artean. Benetan gogorra da izan zuten elkarrizketaren berri ematea. Momentu batean, hau esan zuen batek: Gogoratzen al zara begiak bihurkin batean atera genienekoa? Zer-nolako oihuak egiten zituzten. Pentsa nola senti zaitezkeen hori entzun ondoren...” (12’56”)

Mikel Lejarzak, El Mundo egunkariak 2005eko azaroaren 7an argitaratu zuen elkarrizketan, Peixotorekin izan zuen elkarrizketaren berri ematen du, elkarrizketa horretan esan omen baitzion torturatu, erail eta Hendaiaiko hondartzan lurperatu zituztela. Entzun zuen elkarrizketa bat kontatzen du telebistako erreportajearen, eta ez du esaten gorpuak Hendaiaiko hondartzan lurperatu zituztenik, gerora atera zituztenik edo hiltzak leku seguruago batera eraman zituztenik.

Dokumentaleko beste elkarrizketatuetakoa bat Jose Amedo izan zen. GAL taldeko kide izandakoak esaten du poliziak egin zituela ETA hiru gazte galiziarrek desagerrarazi izanaren erantzule zela salatzen zuten panfletoen egilea; zehazki, Madrilgo Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak egin zituela adierazten du. “Poliziak berak egin eta banatu zituen”. (32’28”)

Ikus-entzuneko erreportajearen beste pasarte batean esaten du inplikatu guztiak galdekatzeko eskatu zuela fiskalak: Perez Revilla, Ceferino Arevalo, Manuel Murua, Prudencio Sodupe, Jesus de la Fuente eta Sabino Achalandabaso. Epaileak, ordea, erabaki zuen ez zela beharrezkoa horiek galdekatzeko. Dokumentalean honako hau esaten da 1/1974 sumarioaren gainean: “oso laburra da, 148 folio ditu, Donostiako 3. Epaitegian egon da eta prentsa-artikuluez osatua dago gehien-gehienean”.

Aurrerago, dokumentalak beste ildo bati heltzen dio, eta azaltzen du informatzaile anonimo batek dei bat egin zuela EL MUNDO egunkariko erredakziora, eta 70ko hamarkadan ETatik oso gertu egondako pertsona bat zela esan ondoren, Humberto, Jorge eta Fernandoren gorpuak leudekeen tokiaren berri eman zuen. Herri Batasunako agintari Telesforo Monzónen jabetzako finka bat zen”. Ondoren, zehaztu zuten tokiaren mapa bat eman ziela konfidenteak.

Telebistako erreportajearen bereizi egiten dira errefuxiatuen taldeak La Tupiña tabernan –eta ez, ordura arte esan zen moduan, La Lycorne tabernan– gazte galiziarrei eman zieten jipoiak, alde batetik, eta gerorako uena, Peixotok eta Revillak beste finka batera eraman zituztenekoa. Bertsio horren arabera, finka horretan torturatu, hil eta desagerrarazi zituzten gazteak. Bilboko komisaldegiko inspektore ohi Luis Ceitegui eta Mikel Lejarza agente infiltratuak uste dute bi horiek egin zituztela krimenak.

Erreportajeak, amaieran, esaten du hobi komun baten modukoa zela Monzonena izandako finka, hiru galiziarrez gain, han lurperatuta bailegoke Pertur.

Horrez gainera, dokumentalak esaten du Angeluko hondartzan aurkitu ziren bi polizien kasuan parte hartu zuela Perez Revillak (1976ko apirilean desagertu ziren bi polizia horiek). Horrenbestez, El Mundo TV komunikabideak emandako bertsioaren arabera, “hiru kasu horien arteko lotura” bat egongo litzateke.

---

### 7.3.2. “El crimen más oculto de ETA” 2. zatia, 2005eko azaroak 24

Konfidenteak El Mundoko erredakziora egindako telefono-deian ematen duen informazioa da erreportajearen bigarren zatiaren oinarria. Gorpuak non egon daitezkeen esan zion informatzaileak komunikabide horri, eta mapa bat ere helarazi zion. Informazio horren arabera, Telesforo Monzonena izandako finka bat da. Konfidenteak esaten die, era berean, leku horretan egon daitezkeela lurperatuta Perturren eta Naparraren gorpuak ere. El Mundok ikerketa-operazio bat abiatu zuen leku hartan, baina ez zuen emaitzarik eman<sup>68</sup>.

Erreportajearen bigarren zatian, elkarrizketak egin zitzaizkien ETako militante izandako pertsona batzuei, Teo Uriarte, Jesus Garcia Garde eta Gorka Landabururi; Jose Luis Cervero guardia zibilari; eta Cambio 16 agerkariko Jose Duaz Herrera kazetariari. Era berean, telebistan eman zen aurreko dokumental-zatian parte hartu zuten pertsona batzuk parte hartu zuten bigarren zatian ere: Javier Zumalde eta Julen Madariaga etakide ohiak; Jose Amedok, polizia ohi eta GAL-eko kide izandakoa; Angel Ugartek, CESID erakundeak garai hartan Euskadin izandako ordezkaria; Mikel Lejarzak, “Lobo” goitizenekoa, CESID erakundeko kidea, ETA erakundean infiltratua; Alfredo Semprunek (semeak), La Razón egunkariko kazetaria; eta Coral Rodriguezek, Humberto Fouzen ilobak.

Kamera ezkutuak baliatuta, erreportariak galderak egin zizkieten ETako kide izandako Juan Cruz Unzurrunzagari eta, kazetariaren informazioen arabera, gertakarietan parte hartu zuten bi pertsonari, Manuel Muruari eta Ceferino Arevalori. Erreportajearen hau esaten da Muruari buruz: “galiziarrekin izandako liskarrean parte hartu zuen, datu guztien adierazten dutenaren arabera”. Kazetaritza-lan horretan, honako hau esaten da Arevalori buruz: “gertakarietan parte hartu izana aitortu zuen etarra bakarria izan zen garai hartan. Bere neskalagun Paquita Aguirreri bidalitako eskutitz batean egin zuen”.

Logroñoeko espetxean Coral Rodriguezen eskutitz bat edo bi jaso zituela aitortzen du Muruak. Eskutitzei zergatik ez zien erantzun galdetzen diote, eta Muruak erantzuten du hori aholkatu ziotela –Rafael Larreina eta Carlos Garaikoetxearekin hitz egin zuela esaten du.

Arevalorengana jo zutenean, bere etxeko atean erantzun zien kazetariaren galderari. Kamera ezkutu bat zeraman kazetariak. Hau esaten die: “egun horretan Ceferino ez zegoen hemen, beraz, ezin du hark izan, eta gainera ez zegoen ez ETAn sartuta, eta ez ezer. Ez da Donibane Lohizunen bizi izan. Hori hasteko”.

Telebistako “*El crimen más oculto de ETA*” erreportajearen bigarren zatia amaitzeko, gertatu zena ezkutatzen jarraitzea egozten die Muruari eta Arevalori: “Hor darrai isiltasunaren hormak. Arevalok eta Muruak ez dute esan, oraindik, dakiten dena”.

Beste kontu batzuei helduta, nabarmendu behar da Diego CARCERO jeneralak “*Sáenz de Santa María, el general que cambió de bando*” liburua argitaratu zuela 2004. urtean. Liburu horren 95. orrialdean, esaten du hiru langileak “poliziaren konfidenteak” zirela, eta “zerga iraultzailea” biltzen zutenak identifikatzea zela beraien lana. Poliziarentzat lan egiten zutela esaten du, eta horrek, ikerketa-lanetan, gatatzak sortu zituela Guardia Zibilarekin Gaineratzen du kasua itxi zutela “frantziarrak haserretu egin zitezkeelako, jendea bidali guelako muturrak beren lurreen sartzera”.<sup>69</sup>

Telebistan “*El crimen más oculto de ETA*” erreportajea eman baino egun batzuk lehenago, 2005eko azaroaren 4an, Aguilera eta Mirallosek, CANAL MUNDO PRODUCCIONES AUDIOVISUALES katearen izenean, salaketa bat jarri zuten kazetaritza-lan horretan bildu zituzten datuetan oinarrituta, eta honako hau eskatu zuten salketan: “*hemen azaltzen diren gertakariak behin betiko argitzeko jardunak egitea*”.

EL MUNDO egunkariaren informazio eta jarduera horien ondorioz eta Coral Rodriguez legebiltzarkideak egindako lanaren harian, Donostiako fiskalak kasua berriro irekitzeko eskatu zuen “Auzitegi Nazionalaren alde inhibitzeko eskaera egiteko asmoarekin.”<sup>70</sup>

Hilabete batzuk geroago, kasua, 1975. urteaz geroztik artxibatuta zegoena, berriro irekitzea erabaki zuen Auzitegi Nazionalak.

2006. urtearen hasieran, ikerketa-lanen egoeraren berri jakin nahi izan zuen Coral Rodriguezek, eta Andreu epailearekin hitz egitea lortu zuen, baina ez zion informaziorik eman, poliziaren txostenen zain zeudelako<sup>71</sup>.

---

68 <https://www.youtube.com/watch?v=pvnjh7QOfz0>

69 CARCERO, Diego. “*Sáenz de Santa María, el general que cambió de bando*”

70 EFE. “El fiscal de San Sebastián pide que se investigue el paradero de tres presuntas víctimas de ETA en 1973”. EL MUNDO. 2005eko azaroak 9.

71 ROMERO, S. “El crimen más oscuro de ETA”. LA OPINIÓN A CORUÑA. 2017ko apirilak 24.



# Azterketa juridikoa

---

---

# 1. Sarrera

---

Gertakarien kontakizuna egin ondoren, auziaren alderdi juridikoak aztertuko ditugu ondorengo orrialdeetan. Azalpena errazteko, hiru ataletan banatuko dugu analisia.

Gertakarien gaineko hipotesi sinesgarrienak dio Frantziako lurraldean gertatu zirela, eta, hori jakinda, labor aztertuko dugu zer jurisdikziok duen Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga gazteen desagertzea epaitzeko eskumena.

Alderdi hori aztertu ondoren, gertakariak kontatzeko kapituluak erabili dugun irizpide kronologiko bera erabiliko dugu sumarioko dokumentazioaren alderdi nagusien berri emateko; izan ere, dokumentazio horretara iristeko modua izan du EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen katedrak. Lanaren zati hori nahiko lehorra da irakurtzeko, baina xehetasunez azaldu nahi ditu alderdi nagusi horien nondik norakoak, sumarioaren sintesi egoki bat eskaini eta dokumentu original osoa irakurtzeko premiarik izan ez dadin.

Hurrengo puntuan, Donostiako 3. epaitegiak auzi horretan egin zuen instrukzioa baloratuko da, prozesuak izan behar dituen bermeen estandarrek ezarritako parametroen arabera egin ote zen aztertzeke. Izan ere, egin ziren eginbideen xehetasunen berri izan ondoren, egokia da, eta ezinbestekoa dela ere esan daiteke, agintariak garai hartan egin zuten jarduna hona ekartzea eta aztertzea. Egia da auzi honetan delitu bat egin dela eta ez dela ziurra hura erabat argituko denik edo haren erantzule izan ziren guztiei zigor bat ezarriko zaienik, baina gertaera larriak gertatu dira kasu honetan: hiru gizaki desagertu dira arrastorik utzi gabe, eta urraturik geratu dira haien bizitzak eta beren familiaena. Hori horrela izanda, gertatutakoa argitzeko bultzada eta ahalegin serioa, egiazkoa eta saiaturia eskatu behar zaie agintariei, baina kasu honetan ez da hori horrela izan denaren zantzurik ageri.

Auziari buruzko atal juridikoan, aurreko txostenetan azaldu diren alderdi teknikoak eta juridikoak ez errepikatzeke ahalegina egin da<sup>72</sup>, baina kontuan izan behar da, alde horretatik, indar eta balio osoa dutela kasu honetan: delituen preskripzioa da kontuan hartzeko alderdietako bat<sup>73</sup> eta desagertutako erantzuleak Amnistiaren Legearen esparruan sartzen diren ala ez erabakitzea<sup>74</sup>, baldin eta ekintzak arrazoi politikoengatik egindakoak izan baldin baziren.

## 2. Jurisdikzio eskuduna

---

Jakina da lurraldetasuna dela jurisdikzio eskuduna zehazteko lehen irizpidea, hau da, gertakariak non gertatu diren begiratzen da, lurralde horretako estatuaren auzitegiek izango baitute delitua epaitzeko eskuduntza.

---

72 Ikusi *Pertur* kasuari buruzko txostena: egoera eguneratua, 2017, 32. or.

73 Erantzukizun penal azkentzeko arrazoiak bat da delituaren preskripzioa. Zigorretako pretentsioa bertan behera geratzen da, baldin eta egindako arau-hausteari dagokion preskripzio-epea gainditzen baldin bada. Delituaren larritasunaren arabera finkatzen da epe hori. Hiru gazteak desagertu ziren unean, delitu guztiek zituzten araututa beren preskripzio-epeak (1963. urteko Zigor Kodearen 112.6., 113. eta 114. artikuluek arautzen zituzten); hala ere, horrek ez du esan nahi gaia agortuta dagoenik (Auzitegi Gorenak, otsailaren 27ko 101/2012 sententzia, frankismoko krimenak agortutzat deklaratu ondoren, interpretazio horren alde egiten duela dirudien arren), ezta delitua ezinbestean preskribatuta dagoenik ere, hura gertatu zenetik hamarkada batzuk igaro direlako. Izan ere, preskripzio-epearen zenbaketa has-teko uneari begiratu behar zaio beti. Jakina da, alde horretatik, tipo penalaren nolakoak erabakitzen duela zer une izango den hori. Hori horrela, delitua aldiuneko baldin bada, hau da, emaitza gertatzen den unean burutzen baldin bada, une horretan bertan hasiko da kontatzen preskripzio-epea; delitu iraunkorretan, berriz, egoera antijuridikoa denboran irauten du eta tipoa indarrean izango da egoera hori amaitzen ez den bitartean, beraz, egoera antijuridiko hori amaitzen den unean bertan hasiko da kontatzen preskripzio-epea.

74 Urriaren 15eko 46/1977 Legeak, Amnistiari buruzkoak, 1. artikuluan arautzen du bi osagai hauek gertatu behar direla legearen eremuan sartzeko: alde batetik, eta irizpide objektibo moduan, delituek asmo politikoz egindakoak izan behar dute amnistia eskuratzeko; eta, bestetik, denborazko irizpide moduan, mila bederatzehun eta hirurogeita sei abenduaren hamabosta baino lehenago egindakoak izan behar dute. Hori guztia aztertzen ari garen kasura ekarri gero, agerikoa da bete egiten dela osagai objektiboa, desagertzea ETAko kideei egotzeko baldin bada, argi eta garbi frogatuko bailitzateke ekintzaren asmo politikoa. Denborazko baldintzarri begiraturik, Auzitegi Gorena-ren doktrinak dio ekintzak gertatu diren uneari erreparatu behar zaiola. Aintzat hartzen baldin badugu ekintzak 1973. Urtean gertatu zirela, lege horren denborazko eremuan sartuko litzateke, eta ezingo litzateke horien aurkako akzio penalik abiatu. Hala ere, aztertzeke litzateke Amnistia Legearen aplikazioa blokeatu ote daitekeen kasu honetan, delituak irauten duela eta, ondorioz, haren burutzean jarraipen bat dagoela arrazoitu baitaiteke, egoera antijuridiko amaitzen ez den bitartean.

Logika hori erabiltzen baldin badugu egoera honetan, jurisdikzio frantziarra litzateke auzia aztertu behar zuten lehena, ekintzak estatu horren lurraldean gertatu zirela baitirudi. Hala ere, txosten honek egiten duen kontakizunean irakur daitekeen moduan, poliziak ikertu zituen, herrialde horretan, hiru gazteen desagertuaren nondik norakoak, herrialdeko hartako epaitegietara iritsi gabe.

Frantziako agintaritzak ez zuen gaia aztertu, baina Espainian egin zen eginbide judizialik, biktimen familiek salaketa bat jarri baitzuten hiru gazteak desagertu eta egun gutxi batzuetara. Jurisdikzio frantziarra zen, lurraldetasun-irizpideari begiratuta, auzia aztertzeko lehen jurisdikzioa, baina jurisdikzio horretara iritsi ez zenez, jurisdikzio espainiarrak<sup>75</sup> abiatu zuen, hasierako une hartan, auziari zegokion prozedura penala. Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiak abiatu zuen prozedura hori.

Kasu honen inkognita handietako bat da ez dela jakina nork desagerrarazi zituen gazte galziarrak, eta alderdi horrek badu eraginik auzia aztertzeko jurisdikzio eskuduna zehazteko, baldin eta onartzen baldin bada auzitegi espainiarrek gertakari horiek epaitzeko eskumena dutela. Hala ere, ezin izan da, oraindik, ezer ziurrik jakin eta ez da “egia judizialik” iritsi. Sumarioaren instrukzioa egin denean, ordea, agerikoa da balizko bi egoera gerta zitezkeela, *a priori* izaeraz. Alde batetik, ETAko kide zen pertsonaren batek edo batzuk egin zitzaizketen ekintza horiek, eta talde edo erakunde kriminaleko kide izanda, Espainiako auzitegiak lireratek desagertetako epaitzeko instantzia, eta zehazki jurisdikzio militarreko auzitegiak<sup>76</sup>, eta horien erreferentziazko araubide juridiko-penala<sup>77</sup> Justizia Militarren 1945eko kodea litzateke<sup>78</sup>. Eta, bestalde, hipotesi horren ifrentzuan, gerta zitezkeen erakunde kriminalekiko loturarik gabeko pertsonen desagerrarazi izana hiru galziarrak. Hori horrela izanez gero, jurisdikzio arruntak aztertu beharko luke auzia, eta, ondorioz, delitua egin zen unean indarrean zen kode penala erabili beharko litzateke gertakariaren kalifikazio juridikoa zehazteko: 1963ko Kode Penal<sup>79</sup>.

### 3. Sumarioaren urrats nagusiak (1973-1975)

Sumarioa berraztertu zen hurrengo aldian, abiatutako akzio judizial nagusien dokumentuak aztertu ziren ordena kronologikoan, Irungo epaitegiak 1973an abiatu zituen aurretzeko eginbideetatik hasi, eta 1975eko urrian sumarioa behin-behinean artxibatu zen arte.

Sumarioan, adierazitako dokumentu horiez gain, garai hartako prentsa-artikuluaren zatiak jasotzen dira (lan honen lehen zatian eman dugu horien berri), eta baita itxura batean Irunen eta Donostian banatu ziren “panfletoak” ere, hiru galziarrak ETAko kideek desagerraraziak eta erailak izan zirela salatzen zutenak.

75 Jurisdikzioa esleitzeko, Botere Judizialari buruzko 1870ko Lege Organikoaren 339. artikuluari begiratu zitzaion, eta, zehazki, ekintzak gertatu ziren unean indarrean zuen testuari.

76 Alde horretatik, zehaztu behar da “ekintza terroristak” bi jurisdikziotan aztertzekoak zirela: arruntean eta militarrean. Ekintzaren subjektu aktiboari begiratuta erabakitzen zen bietako zenetan aztertuko ziren. Hori horrela, jurisdikzio militarrek aztertzekoak ziren *inoizka edo banaka egindako ekintza terroristak izan gabe, denboran irauten duten erakundeek edo taldeek egindakoak*; eta jurisdikzio arruntak aztertzekoak, berriz, *banaka egindako ekintza terroristak edo talde antolamendu eta egonkortasunik gabekoek egindakoak*. Hori arautzen zuten, hurrenez hurren, azaroaren 15eko 42 eta 44/1971 legeak. Gai horretan sakontzeko, ikusi LAMARCA C., “Capítulo segundo: tratamiento jurídico del Terrorismo en el Derecho Penal Español. Aproximación histórica”, *Tratamiento jurídico del terrorismo*, Justizia Ministerioko argitalpen-zentroa, Madril, 1985, 147-153 or.

77 Aukera bakarra dago delitua egin zen unean indarrean zenez besteko lege penal bat erabiltzeko: lege hori gerora erreformatua edo aldatua izan baldin bada eta, aldi berean, aldatetaren edo erreformaren ondorengo arau indarreko hura baino onuragarria baldin bada.

78 Delituak egin zirenean ETAko pertsona bati edo gehiagori egotzi izan baldin bazitzairen horiek egin izana, egindako horiek terrorismo-delituaren tipifikazioa jaso zezaketen, Justizia Militarreko Kodearen 294. artikuluko bis. b) artikuluari erreparatuta (azaroaren 15eko 42/1971 legeak sartu zuen artikulua hori). Gertatutakoak gaur egun epaituz gero, beste lege bat erabiliko litzateke, 1995eko Kode Penalaren bertsio originala, bitarteko lege penal onuragarria den aldetik. Hori horrela, delitua ETAko kideren batek edo batzuek egindakoa dela frogatzen baldin bada, kode horren 572.1.3. artikulua tipifikatutako terrorismo-delitua beteko litzateke, kode horren beraren 571. artikulua arautzen duenarekin harremanean. Horrekin batera, Espainian baliatzen den jurisprudentzia beteko litzateke, eta erakunde terroristako kide izatearen delitua erantsiko litzateke, Kode Penalaren 516. artikuluan arautua.

79 Kode horren 483. artikulua arautzen duenari erreparatuta, legez kanpoko atxiloketaren delitua izango litzateke, eta delitu horren larriagorri izango litzateke atxilotutako pertsonaren berririk ez ematea. Ikus daitekeen moduan, gertakariaren kalifikazio hori ez da Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiak bere garaian instrukzio-fasean egin zen bera; izan ere, ekintza horiek homizidio, erailketa eta lapurretako delituak izan zitezkeela adierazi baitzuen. Ekintza horiek gaur egun epaituko baldin balira, legezketasun-printzipioa bete beharko litzateke eta gerora emandako lege penal onuragarriena izango litzateke betetzeko, hau da, 1995eko Kode Penalaren jatorrizko bertsioa. Zehazki, legez kanpoko atxiloketaren delitua izango litzateke, atxilo hartutako berri eman gabekoa, eta kode horren 166. artikulua arautua.

---

### 3.1. 1973. urtea

Prozedura 1973ko martxoaren 26an abiatu zen, Cesareo Ramirez Ponte jaunak, Jose Humberto Fouzen koinatuak, hiru gazteen desagerpena salatu zuenean Guardia Zibilaren Irungo kuartelean.

Irungo polizia atestatu bat egin zuen Jose Cesareo Ramirezek egin zuen salaketan oinarrituta, eta maiatzaren 5ean zabaldu zen sumarioan sartu zen, Gonzalez Najera epaileak Donostiako 3. Instrukzio Epaitegian egin zituen aurretiazko eginbideekin batera.

Salatzailearen eta hiru gazteen datuez gain, Fouzen koinatuaren deklarazioa jasotzen da:

*(...) "Austin 1.300 markako auto zuri bat zerabilen, C-2143-B matrikulakoa. Autoaren jabeak, Fouz Escobero, gidatzen zuen, eta haiek esandakoaren arabera, Hendaiara edo Donibane Lohizunera ziren joatekoak, pelikula bat ikustera. Gaueko hamarrak aldera ziren itzultzekoak" (...) Salaketa-egileak hainbat gestio egin ditu eta desagertuen argazkiak eta iragarkiak argitaratu ditu Espainiako eta Frantziako prentsan, baina denbora igaro da haien eta zerabilten autoaren berririk izan gabe" (...)*

*(...) "Hilaren 24. eguneko 16:30ean abiatu ziren, eta Ramirez Ponte "Decoexsan" utzi ondoren, ez da hiru horien berririk izan geroztik" (...)*

*"Hiru gazteen desagerpenaren berri eman zitzaizen Segurtasun Zuzendaritza Nagusiari eta Frantziako agintariei, horiek bilatu eta non zeuden jakiteko, baina orain arte egindako gestioek ez dute emaitzarik izan".*

*(...) "Bidasoako Itsas Komandantzia Frantziarrak, hiru gazte horien autoak "Kantauri itsasoko ertzean" –Frantziar sarturik, Hendaiako errepidetik gertuko eremuan– istripu bat izan eta itsasora erori izan zitekeelakoan, miaketak egin ditu itsasertz horretan, baina ez dituzte aurkitu." (...).*

Hurrengo data aipagarria 1973. urteko maiatzaren 5a da; izan ere, Gonzalez Najera epaile-magistratuak probidentzia bat igorri zion Irungo polizia-komisaldegiari, eta, probidentzia horren bidez, hiru gazte galiziarak non zeuden jakiteko gestioak abiatzeko agindu zuen.

Sumarioaren dokumentazioak adierazten du urte horretako maiatzaren 15ean Gonzalez Najera instrukzio-epailearengana jo zuela Irungo Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak, hiru coruñarrak topatzeko gestioek emaitzarik ez zutelari jakinarazteko. Bilaketak egin zituzten "bai polizia frantziarrak, bai ondoko nazioko Jendarmeriak eta Itsas Komandantziak. (...) Frantziako errepede nagusietan eta bigarren mailakoetan begiratuta, Kantauri itsasoko ertz guztia miatu da, istripuren bat izan zuten eta itsasora erori ote ziren ikusteko, baina oraingoz ez da pertsona horien eta beraien autoaren arrastorik edo seinalerik topatu".

Hiru egun soilik igaro ondoren, maiatzaren 28an, aurretiazko eginbideak behin-behinean largesteko auto bat eman zuen, "gertatutakoaren egile ezagunik ez zegoelako".

### 3.2. 1974. urtea

Sumarioak, 1974. urtean, urtarrilaren 7an eman zuen lehen urrats garrantzitsua, familiak homizidio, erailketa eta lapurretako delituen gaineko kereila bat jarri baitzuen Tomas Perez Revillaren aurka eta ekintza kriminalen egilearen edo egileen aurka.

Sumarioak honela ematen du gertakarien berri:

*"1973ko martxoaren 23an, Fouzek, Quirogak eta Garciak festa-egun baterako plana egin zuten ondoko herri frantziar zenbaitetan, "El último Tango" filma ikusteko asmoarekin. Ramirezen ama gonbidatu zuten, semearen etxean egun batzuk igarotzera joana zelako, baina ezin zuela adierazi zuen hark (...) Goizean, Quirogak, pasaportetik ez zuenez, Irungo Mugen Agintaritzan 48 ordutarako muga-baimen bat lortzeko eskatu zion lan egiten zuen enpresako Maria Pilar Campos administrariari."*

*"Bazkaldu ondoren, eta Ramirezen amari berriro eskaintza egin ondoren, Irungo Castilla tabernara joan ziren Fouz bera, Quiroga eta Garcia, kafe batzuk edan eta kartetara jolasteko. Jarduera horiek amaituta, laurak aldera, Austinera igo ziren eta, ohikoak zituzten txantxen artean, Fouz, Quiroga eta Garcia mugarantz abiatu ziren, Ramirez haren Renfeko lantokian utzi ondoren. Orduz geroztik, ez da berriro ere haien berririk izan". (...)*

*“Zurumurrurra arraroak entzuten hasi ziren. (...) Esan zen Austin 1300 autoak, euskal eta frantziar lurren arteko mugaldeen gutxi ikusten zen markakoa izaki, Z-0978-B matrikula zeramala eta marka eta modelo bereko auto baten dokumentazioarekin zebilela errepideetan, eta dokumentazioa lapurtu ziotela haren jabeari, Miarrizko Castillo zinemaren ondoan aparkatuta zuenean. Ibilgailua beste matrikula batekin agertu zenean, gertaeren interpretazio berriak osatu eta beste ikerketa batzuk egin ziren, baina ezin izan zen aurrera egin ikerketa horiekin, ibilgailua ekainean desegin zutela jakin baitzen”. (...)*

(Kereilako orrialde bat falta da)

*(...)”Irainei erantzun zioten Fouzek, Quirogak eta Garciak, baina aurrean zenbat pertsona zituzten eta nor ziren jakin gabe, ziur asko. Liskar bat abiatu zen, eta Fouzek botilakada bat jaso zuen buruan. Horren ondorioz, garun-masa atera zitzaion eta hil egin zen. (...) Taldeko kideek Saint Palais herriko etxalde batera joatera derrigortu zituzten Fernando eta Jorge; bien bitartean, Fouzen gorpua desagerrarazi zuten, ‘Dragon’ izena eta BA 1694 matrikula zuen itsasontziaren bidez”.*

*(...) “Gertaera larri horrekin urdurituta, Quiroga eta Garcia hiltzea erabaki zuten, arrastorik ez uzteko. Tomas Perez Revilla erabaki zuen gazteak hiltzea eta pertsona horrek berak hil zituen; ondoren, etxaldeen lurperatu zituzten”.*

Eginbide hauek burutzea eskatu zen kereilan:

- Honako lekuko hauen deklarazioa: Jose Cesareo Ramirez Ponte; Alfredo Semprun, bere informazioen iturrien berri emateko eskatuta; Victor Maillou Fernandez, “Traffic SA” enpresako Trafiko Departamentuko kidea; Carlos Llanos Saenz, aduanetako agentea eta Fernando Quirogaren nagusia; Maria Pilar Campos Gascon, Fernandoren lankidea eta muga igarotzeko baimena eskatu zuena Fernandorentzat; Rosa Pita Aradas, Jorge Juan Garcia Carneiroren neskalaguna; eta Oswaldo Aldave, autoen salmentarako enpresa baten kidea, Humbertok enpresa horretan eskuratu baitzuen autoa.
- Seguritasun Zuzendaritza Nagusia: zuzendaritza horren artxiboek hiru galiziarren heriotzaren inguruan zuten informazioa.
- Tabernaren izena.
- Fouzen, eta Fernandoren eta Jorgeren heriotzen egilea.
- Austin C-2143-B autoari buruzko informazioa eta Z-0978-B matrikula ere erabili ote duen.
- Z-0978-B matrikula zuen autoaren dokumentazioaren lapurretari buruzko informazioa.
- ‘Dragon’ itsasontziari buruzko informazioa.
- Ramirez Ponteren pasaportearen desagertuari eta hirugarren pertsonen horrekin egindako erabileraren gaineko informazioa.
- Desagertuari buruzko datuak zekartzaten panfletoei buruzko informazioa eta informazio horien jatorria.
- Fernando eta Jorge Juan lurperatu zituen lekuari buruzko informazioa.
- Honako hauek hiru gazte galiziarren heriotza izandako parte-hartzei buruzko informazioa: Manuel Murua Alberdi, “El Casero”; Ceferino Arevalo Imaz, “El Ruso”; Jesus de la Fuente Iruetagoiena, “Basacarte”; Prudencio Sudupe Azcune, “Pruden”; Sabino Achalandabaso Barandica, “Sabin”; eta Tomas Perez Revilla, “Tomas” edo “Hueso”<sup>80</sup>.
- Mugetako agintaritzari informazioa eskatzea Fernando Quirogari emandako 48 ordurako igarobide-baimena: baimena eskatu izanaren ziurtagiria eta, horrela araututa dagoen arren, baimena itzuleran ez zela entregatu adierazten duen ziurtagiria.
- Donibane Lohizunen (Frantzia) hiru espainiarren heriotza eragin zuten gertakarien gaineko ikerketa judicial bat abiarazteko eskatzea agintari judicial frantziarrei.

Eginbide horiek guztiak eskatu ondoren, erruztatuak berehala atxilotu eta prozesatzeko erabakia hartzeko erregutzen da.

80 Sei pertsona horien izen-abizenekin batera, NANeko datuak ematen dira, hala nola jaiotze-data, aitaren eta amaren izena eta helbidea.

---

Kereilan LEAL ESPAÑOL delakoaren eskutitza barneratzeko eskatu zen 1974ko urtarrilaren 15ean. LEAL ESPAÑOL delako batek izenpetutako gutun bat da, eta Fouz, Garcia eta Quiroga jaunei zuzenduta dago. Donostiako Casa de Galician jaso zuten. Urtarrilaren 5eko zigilu-marka du.

Sinatzailearen lagun frantziar batek, IGNACE ROZE izenekoak, kontatutakoaren berri ematen du gutunak. Ingalaterrako RAMSGATE abadetxeko beneditarra zen hura.

Iturri horren arabera, Ramsgate hiriko St. Gregory's College eskolako ikasle espainiar batzuek, igaro berri zen udan, ETAk Frantzia hegoaldean polizia espainiarreko hiru inspektore "garbitu" zituela esaten entzun zioten Elias Jauregui.

Sinatzaile anonimoak ziurtatzen du Elias Jauregui ETAko hiltzailearen ezkutalekua dela eskola beneditarra. "Elias Jauregui terroristari buruzko datu asko izan behar ditu polizia espainiarrak. ETA aurreko abuztuan Hazparnen (Frantzia) egin zuen Batzar Orokorrean izan zen".

Gutuna amaitzeko, hausnarketa hau egiten du: (...) "ez dut nire izenik emango, Baionan bizi naizelako eta han lan egiten dudalako, eta ETAKoek nahi dutena egiten dutelako hemen. Inpunitate osoz egiten dituzte erailketak ere. Ezin al da espainiar fin eta adoretuen talde bat prestatu, hemen, Frantzia, ETAKo pizti batzuk "garbitzeko"?

Kereila onartzeko autoa eman zuen urtarrilaren 18an Manuel Gonzalez Najera magistratu instrukzio-egileak, eta honako alderdi hauek erabaki zituen auto horretan:

- Adierazitako lekukoaren deklarazioa.
- Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren informazioa eskatzea, Irungo polizia-komisaldegia bitartez.
- Muga igarotzeko baimen-eskaeraren ziurtagiria eskatzea Mugako Agintaritzari.
- Ez da onartzen, oraingoz, agintari judizial frantziarrei ikerketa judizial bat abia dezaten eskatzea, harik eta autoek ziurtasun zehaztasun handiagoz egiaztatzen dituzten arte adierazitako egitate horiek.

1974ko urtarrilaren 30ean, Espainiako Ipar Mugako Agintaritzaren ziurtagiri bat aurkeztu zuen Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak. Ziurtagiri horrek esaten du Fernando Quiroga Veigak muga igarotzeko baimen bat, epe labur baterakoa, eskatu zuela 1973ko martxoaren 24an, eta egun horretarako eta hurrengo egunerako balioa zuela, Frantziara joateko. Era berean, honako hau esaten da: "ez dago jasota Espainiara itzuli denik eta igaro-baimena entregatu denik". Mugako ordezkari-buruaren sinadura darama agiriak.

Donostiako Ikerketa Sozialeko Brigada Probintzialak, Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko organoak, 1974ko otsailaren 14an erantzun zion epailearen exhortoari, eta honako hau adierazi zuen:

"Bertako artxiboak kontsultatuta eta orain arte egin ahal izan diren beste gestio batzuekin (...)oso zaila da gestioak zuzenean egitea Frantziako lurretan":

- Jose Cesareo Ramirez Pontek 1973ko apirilaren 17an Irungo komisaldegian jarri zuen salaketaren, 4.015 zenbakidun eginbideen eta bildutako informazioen ondorioz, jakin da hiru gazteek beren etxean bazkaldu zutela 1973ko martxoaren 24an, 13:30ean, eta ondoren gertu zuten Irungo Castilla tabernara joan zirela. Han karta-partida batzuk jokatu zituzten Ramirez Ponterekin, eta, haiek amaitzean, Austin 1300 auto zurian eraman zuten "Decoexsa" enpresara, han lan egiten baitzuen. Horren ondoren, gazteek esandako moduan, Hendaiara edo Donibane Lohizunera joan ziren, filma bat ikustera, eta gaueko 10:00ak aldera itzuliko zirela esan zuten. Martxoaren 26an, Ramirez Pontek, gazteak falta zirela ikusita, Guardia Zibilaren kuartelean salatu zuen gertatutakoa. Ez dago erregistratuta C-2143-B matrikulako ibilgailua irten zenik, bai larunbat arratsaldean ibilgailu ugari igaro zirelako, bai mugan oso ezagunak zirelako Frantziara egiten zituzten joan-etorri ugariengatik.
- Kantauri itsasoko ertzean istripu bat izan eta itsasora erori zitezkeela pentsatuta, desagerketaren berri eman zitzaion Frantziako Jendarmeriari, haien bilatzen has zitezen. Itsas Komandantziak miatu zuen itsas eremua, eta errepideak begiratu zituen poliziak.
- Hiru galiziarren heriotza eragin zuen liskarra taberna batean gertatu bazen ere, ez da jakina tabernak zer izen duen edo non ote dagoen. Frantziako poliziaren bidez modu estraofizialean jakin da ezin izan dela egiaztatu hiru gazteen liskar batean parte hartu zutenik Donibane Lohizunen edo Hendaian. Saint Palais herrian SERRA izena darama etxalde batek, ETA V-ren mendekoa da itxura batean eta, Burgoseko espetxean kondena betetzen ari den JESUS MARIA MUÑO A GALARRAGAK



egindako adierazpenen arabera, 7 milioiko etekinak izaten ditu urtean. Ez da jakina Fernando Quiroga eta Jorge Juan Garcia etxalde horretan edo besteren batean hil ote zituzten.

- Ezin da ziurtasunez eta frogetan oinarrituta esan nor edo nortzuk izan diren hiru gazte galziarren heriotzaren egile edo egileak, baina modu konfidentzian adieraz da Ceferino Arevalo "El Ruso" izan zela liskarrean parte hartu zuenetako bat. Horrez gainera, honako hau esan da: "Egitate kriminalean oso partaidetza zuzena edukitakoa izan daiteke Tomas Perez Revilla".
- Nabarmendu behar da gezurra dela Austin 1300 autoa Z-0978-B matrikularekin ibili zenik.
- Ez da jakina ETaren jabetzako itsasontzia erabili zenik "gazte galziaren ustezko erailketan".
- Ez da jakina non dagoen Ramirez Ponteren pasaporte, 143-B matrikulako autoan zegoena.
- Ez da jakina zer pertsona dauden Irunen eta Donostian agertu den propagandaren atzean.
- Ez da jakina zer lekutan lurperatu zituzten Fernando eta Jorge Juan.
- Honako hau adierazi da Manuel Murua Alberdik, Ceferino Arevalo Imazek, Jesus de la Fuente Iruretagoyenak, Prudencio Sudupe Azcunek, Sabin Achalandabaso Barandicak eta Tomas Perez Revillak hiru gazte horien heriotzan izan duten balizko parte-hartzeari buruz: "nahasmen handia dago kasuaren inguruan eta ezin da zehaztu horien balizko parte-hartzea, baina ezin da baztertu, ETA V. Asanbladako kide arriskutsuak, ekintza terroristen egileak eta Frantziara, Donibane Lohizune, Hendaia eta Baiona arteko eremura, ihes egindakoak diren aldetik, horietakoren batek hiru gazte galziarren erailketan parte hartu dutenik, espainiarrak zirela adierazte hutsagatik edo poliziak edo poliziaren kolaboratzailea zirela uste zutelako".
- ETA V. Asanbladako Jesus Maria Zabarte Arregui, "Garratz" liberatua atxilotu zen 1973ko irailaren 30ean (...) eta honako hau jakin da Zabarteren deklarazioan: "behin batean Tomas Perez Revillari hiru gazte desagertuei buruzko galdera egin ondoren, hark erantzun zion ZENBAT ETA GUTXIAGO ZABALDU HORREN INGURUAN, HAINBAT HOBE. Zabartek gaineratu zuen: ZERBAIT ARRAROA GERTATU ZELA IKUSI NUEN ETA EZ NUEN GALDERA GEHIAGORIK EGIN NAHI IZAN".

Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren mende zegoen Donostiako Ikerketa Sozialeko Komisaria Nagusiko komisario-buru probintzialak sinatuta dago idatzia.

Bestalde, epailearen aurrean deklaratzera deitutako pertsonen artean, Alfredo Semprun da nabarmenetako bat, kasuaren gaineko informazioa argitaratu baitzuen ABC egunkarian. Martxoaren 1ean deklaratzeko deialdia egin zitzaion, baina ez zen agertu. Ez zen agertu, ezta ere, martxoaren 22an, eta ondorioz, epaileak probidentzia bat eman zuen hari isun bat jartzeko. Horrekin batera, jakinarazi zitzaion hurrengo deialdira agertzen ez baldin bazen, indar publikoa erabiliko zela. Azkenik, martxoaren 28an agertu zen Alfredo Semprun eta bere deklarazioan esan zuen ezin zuela bere iturrien berri eman, informatzaileen segurtasuna bermatzeko: "ez daki informatzailetako askoren nortasun pertsonal eta egiazkoa, ez dutelako horren berririk eman nahi izan, hain justu ere, beren segurtasun pertsonala babestu nahi izan dutelako, ETAkoen heriotza-mehatxuak jaso ondoren".

Kronista horrek, era berean, "Madrilgo ABCn idatzitakoak berresten ditu", eta gaineratu zuen, berak eskuratutako beste txosten argitaragabe batzuen arabera, gertakariak Donibane Lohizuneko "El Unicornio" tabernan abiatu zirela<sup>81</sup>.

Apirilaren 15ean, Jose Luis Tames Guridi prokuradoreak epaileari zuzendu zitzaion, honako eginbide hauek egin zitezkeen eskatzeko:

1. Tomas Perez Revillaren aurrekari penalak.
2. Jesus Maria Zabarteri Donostiako Epaitegi Militar Berezian –Loiolako infanteria-kuartelean zegoen– egindako galdeketa deklaratuakoen ziurtagiria.
3. Segurtasun Zuzendaritza Nagusiari informazio-buletinaren 46. zenbakia, 1973ko azaroaren 16koa, eskatzea.
4. Guardia Zibilaren Zuzendaritzari txosten bat eskatzea, sumarioaren sorburu diren gertakarien gainean haren ikerketa-zerbitzuek, informazio-iturriek, eta, halakoak egin izanez gero, hartu dituen deklarazioek emandako informazioa biltzeko.

81 Kazetari horrek idatzitako kroniketan ez zen taberna hori aipatu.

- 
5. Honako lekuko hauen deklarazioa: Rosa Pita Aradas (Jorge Juanen neskalaguna); Jesus Maria Zabarte, Donostiako Epaitegi Militar Bereziaren eskura garai hartan, hiru gazte coruñarren gainean zuen informazioarengatik; eta Fuerza Nueva aldizkaria, Ramsgateko St. Gregory's College eskolari buruz argitaratutako gutunen egilearen berri eman zezan.

Astebete geroago, apirilaren 23an, eskatutako eginbide guztiak egiteko agindu zuen Gonzalez Najera epaileak, Tomas Perez Revillaren aurrekari penalei zegokiena izan ezik. Azalpen hau eman zuen magistratuak: "Ez da onartzen, oraingoz, Tomas Perez Revillaren aurrekari penalak eskatzea, ez delako gertatuak ikertze-ko eginbidea". Honako hau esan zuen Jesus Maria Zabarteren deklarazioaren eskaeraren gainean: "bere garaian erabakiko da, behar diren datuak jakiten direnean".

Bi hilabeteko epean iritsi ziren Donostiako Epaitegira epaileak agindutako gainerako frogak. Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak informazio-buletinaren 46. zenbakia, 1973ko azaroaren 16koa, bidali zuen maiatzaren 8an. Buletin horretan, ez zaie egiletzarik egozten Prudencio Sudupe Azcuneri eta Sabino Achalandabaso Barandicari. Hala ere, honako hau esaten da Manuel Murua Alberdiri, Ceferino Arevalo Imazi eta Jesus de la Fuente Iruretagoyenari buruz, hots, horietako bakoitzari buruz: "Frantzian, Irunen bizi ziren hiru langile galiziarren hilketan parte hartu zuen". Honako hau esaten da Tomas Perez Revillari buruz: "Aurtengo martxoan, hiru gazte galiziarren erailketa eta desagerraraztea zuzendu zuen, haiei Donibane Lohizunen ikaragarritzko jipoia eman ondoren".

Buletinak "Dragon" ontzia ETArena zela esaten du eta hura Lucio Ochoantesana "Luquen" goitzenekoaren ardurapean zegoela. Baina ez da esaten hiru galiziarren desagerpenarekin zerikusia duenik.

Fuerza Nueva aldizkariko zuzendariak ere erantzun zion epailearen errekerimenduari, eta honako hau azaldu zuen maiatzaren 9an izenpetutako idatzi batean: "ezezagunak zaizkigu aldizkarian St. Gregory's College eskolaren gainean argitaratutako artikuluen egileen izenak". Esaten du bi gutun jaso zirela aldizkari horren erredakzioan, UN LEAL CAMARADA delakoak sinatutakoa (sumarioak gutunaren kopia bat dakar, eta "Un leal español" da sinatzailea) bat, eta MJD-k sinatutakoa bestea". Honako hau gaineratu zuen: "horien edukia baliatu zen lehen eta bigarren artikulua osatzeko".

Maiatzaren 18an, Jesus Maria Zabartek egindako deklarazio-aktaren ziurtagiria iritsi zen Donostiako Epaitegi Militar Berezitik. Horren jatorria 13-73 Sumario Arrunta zen –Jose Lasanta Martinez infanteriako teniente-koronela izan zen sumario horren epaile instrukziogilea.

Bilbon galdekatu zutela esaten da deklarazioaren aktan, 1973ko irailaren 28an, Generalísimo Franco ospitale zibileko Revilla pabilioiaren 13. gelan. Polizia Kidego Orokorreko inspektoreek egin zuten galdeketa, Bilboko Polizia Buruzagitza Nagusiaren Ikerketa Sozialeko Eskualde Brigadakoak. Hau esaten da akta horretan:

*"Minez dago zauriak jasan zituen hankan, baina egoera onean dago egiten zaizkion galdera guztiei erantzuteko, eta prest dago haiei normaltasun osoz erantzuteko".*

*148. folioa.- GALDETU ZAI O.- Azaltzeko non dauden martxoan muga igaro eta oraindik ageri ez diren hiru gazte "galiziarrek", eta honako hau adierazi du: Galiziar horiek Hendaiara egin zuten bisitaren ondoren, egunkariek argitaratu zuten ETA erakundeak hil eta desagerrarazi zituela; deklarazio egileak esan du, erakundearen barruan zela horiek argitaratu zirenean, baina esan du ez zekiela ezertxo ere horri buruz eta TOMAS PEREZ REVILLARI horren gainean galdetu zionean, honako hau erantzun zio-la: "ZENBAT ETA GUTXIAGO JAKIN HORRI BURUZ, HOBE",*

*"Esku ezkerre erabili du deklarazioa izenpetzeko, zaurituta eta igeltsuz estalia baitu eskuinekoa".*

Agiria jaso ondoren, Gonzalez Najera epaileak Jesus Maria Zabarteri deklarazioa hartzeko agindu zuen maiatzaren 27an. Zabarte Basauriko espetxe probintzialean zuen une hartan.

Jesus Maria ZABARTEK Basauriko udal-epailearen aurrean egindako deklarazioaren berri ematen duen idatzian ez da argi eta garbi bereizten ekaineko zer egunetan egin zitzaion galdeketa. Baina argi eta garbi irakurtzen da zer esan zuen Zabartek: "ez duela inolako zerikusirik aipatu zaion gertakariarekin, ez baitu horretan parte-hartzerik izan eta ez dakiela nork edo nortzuk desagerrarazi dituen aipatu zaizkion pertsonak".

Epaileak apirilaren 23an baimendu zituen lau eginbideetatik azkena osatzeko, Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak txosten bat igorri zion epaile instrukziogileari maiatzaren 29an.

Hasiera batean, honako hau esaten du txostenak: "1973ko martxoaren 26an, Jose Ramirez Pontek desagerpenaren gaineko salaketa jarri zuen gure indarrek Irunen duten kokagunean" (...) Honako hau zehazten du aurrerago:

“Egun haietan, poliziak eta gure indarrek harreman ofiziosoak abiatu genituen muga inguruko polizia frantziarrarekin, baina ez zen desagertutako gazteak non egon ote zitezkeen jakin; hala ere, denbora igaro ondoren, propaganda zabaldu zen gure herrialdeko zenbait lekutan, eta propaganda horrek esaten zuen ETAko kide batzuk erail zituztela gazteak, Donibane Lohizuneko taberna batean egin zieten eraso baten ondoren, Espainiara itzultzen ari zirenean filma bat ikusi ostean”.

*“Propagandak aipatzen dituen egileen artean daude ETA erakunde klandestinoko kide hauek, Frantzian bizi direnak: Manuel Murua Alberdi, “El Casero”, Jose de la Fuente Iruretagoyena, Ceferino Arevalo Imas, “El Ruso”, Sabino Achalandabaso Barandica “Sabin” eta Prudencio Sudupe Azcune, “El Pruden”, gutzien buru Oñatiko Galparsoro delako bat dutela, Txikiaren bigarrena”.*

Adierazten du, era berean, honako hau ziotela Guardia Zibilaren txostenek: “abuztuaren 13an, Jaime Quiroga Campok (...) telefono-dei bat jaso zuen bere etxean, (...) bere semea eta bere lagunak bizirik zeudela, Frantzian. Deitzaileak ez zuen bere burua identifikatu, berri gehiago emango zuela esan zuen, baina ez zuen halakorik egin”.

Txostenak konfirmatzen du, era berean, Guardia Zibilak, abuztuan, bi gutun jaso zituela Irunen:

*“Bi gutun jaso ziren Irungo postuan, Postuko komandanteari zuzenduta bat, eta desagerturik zegoen QUIROGA VEIGA gazteari zuzenduta bestea, Bartzelonatik bidalitakoa eta Fernandez osabak, Antonio Veiga Villa jaunak, izenpetua. Bere iloba non zegoen jakin nahi zuen, bazekielako, haren amaren esandakoagatik, semeak, Jaque edo Jaqui izeneko batekin eta Jose Humberto Fouz Escoberoarekin garraio-agentzia bat sortzen saiatzen ari zirela eta, horretarako, diru-kopuru handi bat eman ziela gizon ezezagunak”. (...)*

Horrez gainera, hau adierazi zuten txostenean:

*“Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak emandako zenbait datuk daude gure artxiboetan, eta datuok gazte horien hilketarekin eta desagerpenarekin lotzen dituzte, egile gisa, ETAko Tomas Perez Revilla, Manuel Murua Alberdi, Ceferino Arevalo Imaz eta Jose de la Fuente Iruretagoyena kideak, baina ez da jakina zein den akusazio horien informazio-iturburua”.*

Estatu Nagusiko koronel buruak sinatutako agiria da. Madrilen. Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren zigilua du. Estatu Nagusia.

1974. urtearen amaieran, abenduaren 27an, hiru coruñarren senideen prokuradoreak honako froga hauek egiteko eskatu zion Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiari:

- Deklarazioa hartzea Jorge Juanen neskalagun Rosa Pitari.
- Ofizioa bidaltzea Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren Ikerketa Sozialeko Komisariari, eta, horren bidez, Perez Revillak, Ceferino Arevalok, Manuel Muruak eta Jesus de la Fuentek erail zituzten hiru galiziarren izenak zehazteko eskatzea, 46. zenbakiko buletinean, 1973ko azaroaren 16koan, esaten direnei erreparatuta –Epaitegira bidali zen buletin hori, 1974ko maiatzaren 7ko ofizioarekin batera–; eta adierazteko, era berean, nola erail zituzten hirurak. Eskatzen zaie azaltzeko nola eta zer modutan gertatu zen hiru gazte galiziarren erailketa, eta informazio horien iturriak zehazteko.
- Ofizioa bidaltzea Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko Informazio Buruzagitzaren Azterlanen Kabinetera, hiru gazteak Donibane Lohizunen nola eta zer erataria hil zituzten jakiteko informazioa galdatzeko eta erailtzaileak identifika ditzaten eskatzeko.
- 1974ko abuztuaren 12ko buletinaren (GE/6, 67. zk./RG/mj) 20. eta 21. orrialdeen kopiak igorriko dira, epigrafe hauekin: –ASESINATO DE TRES JÓVENES GALLEGOS EN SAN JUAN DE LUZ E IDENTIFICACIÓN DE LOS AUTORES DEL TRIPLE CRIMEN–.

Bestalde, nabarmendu behar da 1973ko maiatzaren eta abenduaren bitartean banatutako zazpi panfleto ageri direla 1/1974 sumarioan. Eskura dauden datuen arabera, desagerpena gertatu eta bi hilabetera zabalduak da horietako lehena. Lehen panfleto horrek esaten du ETAko ustezko kide hauek direla egileak: “ETAko komando batek eraso egin zien, haren buru “Txikiaren” bigarrena zen, Galparsoro izeneko oñatiar bat. Honako hauek ziren komando-kide: MANUEL MURUA ALBERDI “El Casero”; JOSE DE LA FUENTE IRURETAGOYENA; CEFERINO AREVALO IMAZ “El Ruso”; SABINO ACHALANDABASO, “Sabin”; eta PRUDENCIO SUDUPE AZCUNE “El Pruden”. Eraso horren ondoren, ez da hiru gazte horien berririk izan”<sup>82</sup>.

82 Txosten honen lehen zatiko laugarren puntuan ematen dira propaganda horren xehetasunak.

---

### 3.3. 1975. urtea

Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiko Salinas Yanes epaileak magistratu-probidentzia bat eman zuen urtarrilaren 9an, eta, haren bidez, kereila jarri zuen alderdiaren bi eskaera onartu zituen, Rosa Pita Aradasi deklarazioa hartzea eta kasuaren gainean dituen dokumentuak eskatzea Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren Ikerketa Sozialeko Komisaldegi eta Informazio Buruzagitza-Azterlanen Kabineteari.

1975eko urtarrilaren 17an deklaratu zuen Rosa Pita Aradasek.

*“Martxoaren 24an, arratsaldeko hiruak inguruan, bere mutilagunak (Jorge Juan Garcia Carneirok) telefonoz deitu zion, Frantziara, Donibane Lohizunera, zihoala esateko, filma bat ikustera. Deklarazio-egileari ez zion esan bidaia horren helburua Fouzen arrebarentzat urtebetetze-opari bat erostea zenik”.*

Yanes epailearen exhortoari erantzuteko, Ikerketa Sozialeko Komisaldegi Nagusiaren Segurtasun Zuzendaritza Nagusiak (Madril) urtarrilaren 28an bidali zuen txostenak esaten du hau dela bere informazioaren oinarria: “Donostiako Ikerketa Sozialeko Eskualde Brigadak apirilaren 27an egindako informazio-oharra”.

*“Martxoaren 26tik aurrera, ikusita hiru gazte horiek ez zirela ondoko herrialdetik bueltatzen, beraien senideek, Guardia Zibilak, Poliziak eta polizia frantziarrak hainbat gestio abiatu zituzten, hiru pertsona horiek non egon ote zitezkeen jakiteko. Hurrengo egunetan egindako gestioen ondorioz, jakin zen martxoaren 24ko gauaren lehen orduetan, Donibane Lohizuneko taberna batean, ETA V. Asanbladan parte hartu zuten eta ihes eginda dauden pertsona batzuek eraso egin zieten langile espainiarrei, eta jakin zen, era berean, eraso horren ondorioz zenbait zauri larri eragin zitzaizkiela hirurei, eta, zehazki, begi bat aterra ziotela horietako bati. Informazio-ohar horretan esaten da pentsatzekoa dela beste lesio batzuk eragin zitzaizkiela horren ondoren, eta jakina dela honako pertsona hauek osatzen zutela eraso egin zuen taldea: Manuel Murua, (...) Ceferino Arevalo, (...) Prudencio Sudupe, (...) eta Jesus de la Fuente. (...) ETA V. Asanblada erakunde terroristako aktibistak dira horiek guztiak, berriki ihes egindakoak”.*

*“Gerta zitezkeen erasotzaileek, “langile espainiarrei” emandako jipoi itzelek ekar zitzaizketen ondorioekin ikararuta, gertatu zena ezkutatzeko erabakia hartu izana, eta hotz-hotzean erail izana hiru biktimak, gerora beren gorpuak eta bidaian erabili zuten autoa desagerrarazteko”.*

Sumarioa abiarazi zuen akziora bueltatuta, adierazi behar da desagerturik zeuden hiru coruñarren familiek jarritako kereilak eginbide-zerrenda bat betetzeko eskatzen ziola epaileari, eta, haren amaieran, honako hauek prozesatzeko eskaera egiten zuela: Tomas Perez Revilla, Manuel Murua Alberdi, Ceferino Arevalo Imaz, Jesus de la Fuente Iruretagoyena, Prudencio Sudupe Azcune eta Sabino Achalandabaso Barandica. Epaileak, ordea, ez zion orduan erantzun azken eskaera horri.

Gerora erantzun zitzaion eskaerari, epaileak martxoaren 6an eman zuen autoaren bidez. Hau esaten du autoak: “ez da onartzen Tomas Perez Revilla, Manuel Murua Alberdi, Ceferino Arevalo Imaz, Jesus de la Fuente Iruretagoyena, Prudencio Sudupe Azcune eta Sabino Achalandabaso Barandica prozesatzeko eskaera, kereila jarri duen alderdiak egindakoa; hala ere, alderdi horren eskubidea da prokuradoreak berriro egitea eskaera galdegindako Auzitegi eskuduneari”.

Aintzat hartuta “autoetan gauzatu diren jardueretan ez dela behar bezala zehaztu salatutako pertsona horiek sumario honen hasierako idatzian adierazten diren gertakarietan parte hartu dutenik; bidezkoa da, horrenbestez, horiek prozesatzeko eskaera ezesteko erabakia hartzea”.

Auto hori eman ondoren, sumarioan behin eta berriro errepikatzen dira prozesatzeko eta Frantzian ikertzeko eskaerak, prokuradorearen aldetik, eta “ez da onartzen” erantzunak epaile instrukziogilearen aldetik, harik eta magistratuak adierazten duen arte Epaitegiak ez duela gertakariak epaitzeko eskumenik.

Bi egun geroago, martxoaren 8an, ordura arte gauzatu gabeko eginbide batzuk gauzatzeko eskatu zuen prokuradoreak, bere garaian kereilan eskatutakoak. Zehazki, 4. eginbidea gauzatzeko eskatu zuen, hau da, Espainiak eta Frantziak elkarrekiko izenpetuta dituzten hitzarmenetan oinarrituta, (...), Polizia Judizial frantsesari ikerketa bat egiteko eta Epaitegi honi informatzeko agindua eman diezaiola eskatzea Frantzian eskumena duen Auzitegiari. Horrez gainera, sumarioko lekuko guztien deklarazioak, Espainiako Segurtasun Zuzendaritza Nagusiko agiri ofizial guztiak eta ABC egunkariako kazetaritza-artikuluak bidaltzeko eskatu zuen. INTERPOL erakundearen parte-hartzea eskatzen du, hauek iker ditzan:

- Poliziak judizial frantziarrak egin dituen eginbideen gaineko informazioa.
- Frantzian egin diren jarduerak judizialak.

- Eskatzen du Pedro Alquizuk, "El Quepa" goitzenekoak, gertakarien egunetan edo ondorengoetan Austin 1300 autoa erabili ote duen hark faltsifikatutako matrikula erabilia.
- Auto hori non dagoen ikertzeko.
- "La Lycorne" tabernaren gaineko ikerketa bat egitea, jakiteko nork gobernatzen duen, zer pertsona zeuden taberna horretan 1973ko martxoaren 24an, bai lanean, bai bezero moduan, eta horien artean Manuel Murua, Ceferino Arevalo, Prudencio Sudupe, Jesus de La Fuente eta Tomas Perez Revilla ote zeuden.
- Ikertzea 1973ko martxoaren 24an liskar bat izan ote zen taberna horretan, eta liskar horretan adierazita pertsona horiek aritu ote ziren beste espainiar batzuen aurka.
- Ikertzea ea adierazitako pertsona horiek beste liskarren bat izan ote zuten beste lekuren batean.
- Ikertzea pertsona horiek Donibane Lohizunen ote zeuden martxoaren 24an.
- Desagerturik dauden hiru gazte galziarrak non diren ikertzea.
- Ramsgateko beneditarrek desagerturikoen kasuari buruz zer dakiten iker dezala eskatzea INTERPOL Ingalaterrari.

Bi egun geroago, martxoaren 10ean, familiaren ordezkariak erreforma-errekurtso bat jarri zuen martxoaren 6ko autoaren aurka, hau da, kereilan egile moduan adierazi zirenak prozesatzeko eskaera ezetsi zuen autoaren kontra (Tramitera onartu zen martxoaren 17an).

Errekurtsoak, ematen dituen argudioen artean, adierazten du autoa ez dela erabat zuzena izan, martxoaren 8ko idatzian proposatu zen proba osotasunean egin zela adierazten duenean –autoritate judizial frantziarrari ikerketa judizial bat abia zezala galdatzeko eskatzen zuen idatzi horrek–.Froga hori ez dela gauzatu adierazten du errekkurtsoak. Aurrerago, honako hau adierazten du sumarioaren gainean: "informazio anonimo edo ezkutuen gainean abiatu da". (...) Eta beste hau ziurtatzen du: "mutil horien egin zutenaren froga bat dago- eta horien berri ematen du, bestalde, Semprun lekukoak autoetan egin zuen deklarazioan, eta, gainera, deklarazio horretan, berretsi egin ditu Madrilgo ABC egunkarian idatzitakoak".

Prokuradoreak, era berean, hizpide hartzen du Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren 46. zenbakiko buletina, 1973ko azaroaren 16koa. Txosten pribatu bat da buletin hori, poliziaren barne-erabilerarako. Buletinak esaten du Tomas Perez Revillak, Manuel Murua Alberdik, Ceferino Arevalo Imazek eta Jesus de la Fuente Iruretagoyenak hiru langile galziarren hilketan parte hartu zutela, Frantzia.

Azkenik, honako hau erregutzen du: "sei pertsona erruztatuak prozesatzeko agintzea, gertatu direnak argitzeko behar diren frogak egitea, gauzatu ez dena izatea horietako bat, eta legez dagokien moduan bideratzea autoak".

Epaileak martxoaren 20an eman zuen autoak ezetsi egin zuen martxoaren 6ko autoa erreformatzeko eskaera eta martxoaren 8ko idatzian eskatu ziren eginbideak, Epaitegiak eskumenik ez duelakoan:

AINZAT HARTUTA (...) "salatu diren pertsonak gertakarietan parte hartu dutela jakiteko frogarik ez dagoela adierazi da pertsona horiek prozesatzeko eskaera ezesteko autoan, baina horrez gain, nabarmendu behar da Epaitegi honek ez duela eskumenik gertakari horiek epaitzeko, ez direlako betetzen Botere Judizialaren Lege Organikoak 339. artikuluan arautzen dituen eskakizunak, eta, ondorioz, bere horretan utzi behar da ebazpen hori" (martxoaren 6koa).

Hau esan zuen epaileak: "Ez da onartzen Epaitegi honek auzi honetan 1975eko martxoaren 6an eman zuen autoa erreformatzea (ustezko sei egileak prozesatzeko eskaera ezesten du auto horrek), eta bere horretan eutsiko zaio, zati guztietan. Ez da onartzen kereila-jartzaileak hilaren zortzian aurkeztutako idatzian eskatzen dituen eginbideak gauzatzetik".

Prokuradoreak handik lasterrera, martxoaren 22an, aurkeztu zuen martxoaren 20ko autoa emendatzea ezesten duen autoaren aurkako apelazio-errekurtsoa, eta honako arrazoi hauek eman zituen:

- Pertsona horien prozesamendua agintzeko behar den zantzu arrazional nahikoa dagoela irizten du. Aurkeztutako froga eskatzen da martxoaren 10eko erreforma-errekurtsoan (Semprunek ABC egunkarian idatzitako artikulua eta Segurtasun Zuzendaritza Nagusiaren 46. zenbakiko buletina).

- 
- Honako hau adierazten du Epaitegiaren eskumenik ezaren gainean: “Sumarioak ez dakar inplikatuak Espainian ez daudela erakusten duen frogarik”. Zuzenbidean, halako frogarik izan gabe, ezin da, arintasunez, eskumenik eza xedatu”. Gaineratzen du autoak kontraesan bat dakarrela, izan ere “erruduntasun-frogarik dagoen ala ez epaitzen da, baina, aldi berean, eskumen-gabezia adierazten da. Eskumenik ezean, ezin dira gertakariak epaitu, eta gertakariak epaitzen dituen aldetik, horretarako eskumena duela ulertu behar da”.
  - “Kereila-idatzian adierazten diren alderdiak frogatzeko behar adina frogarik ez dagoela uste baldin badu Epaitegiak, are handiagoa da, oraindik, froga hori gauzatzeko beharrezana (...)”.

Apelazio-idatziaren amaieran, honako hau azaltzen du prokuradoreak BEREBAT DIOT idatz-zati batean: “Auto horretan zenbait berritasun daudela ikusita, hala nola eskumen-gabeziaren deklarazioa eta frogaren ezespena, bi erabaki horien aurkako erreforma-errekurtsoa eskatzen dut, baldin eta ezinbestekoa baldin bada, apelazioko errekurtsioa jarri aurretik”.

Berriro ere, epaileak, apirilaren 7an emandako magistratu-probidentziaren bidez, eutsi egiten dio bere jarraitzaileari: “ez da izapidetzeko onartzen kereilatuen prozesamendua ezestea erabaki zuen erreformaren aurka aurkeztu den apelazio-errekurtsoa (...); hala ere, alderdiaren eskubidea da eskaera hori berriro egitea, prozesuko une egokian”.

“Eta izapidetzeko onartzen da diligentzien gauzapena ezetsi izanaren aurka jarri den erreforma-errekurtsoa (...) Kopia igortzen zaio Fiskaltzari”.

Ildo berari lerratzen zaio epaileak apirilaren 10ean eman zuen autoak, eta ezetsi egin zituen eskatutako eginbideak, arrazoi honegatik: “ez dira beharrezko ikusten sumario honen jardunbidean”:

“AINTZAT HARTUTA: Kereila-jartzailearen ordezkariak eman dituen argudioek ez dituztela inondik inora ere desitxuratu errekurritzen den ebazpena ematean kontuan hartu ziren oinarriak, eutsi egingo zaie ebazpenaren zati guztiei, eta ez da onartuko eskatu ziren eginbideen gauzapena, ez direlako beharrezko ikusten sumario honen jardunbidean”.

Hau esan zuen epaileak: “Ez da onartzen 1975eko martxoaren 20an eman zen Autoa, Tames Guridi prokuradore-jauinak proposatu zituen frogak ez onartzekoa, erreformatzeko erabakia hartzea, eta ebazpen hark irimo jarraituko du, indarrean zati guztietan”.

Gerora, apirilaren 17an, eginbide bat jaso zen sumarioan, ziurtatzeko azken ebazpenaren jakinarazpena egin zenetik bost egun igaro zirela eta kereila jarri zuen alderdiak ez zuela apelazio-errekurtsorik jarri eginbideak gauzatzeko ezetsi eta sumarioa amaitutzat ematen zuen ebazpenaren aurka.

Azkenik, apirilaren 17ko auto horren bidez, Antonio Salinas Yanes epaileak amaitutzat eman zuen sumarioa, “prozedura pertsona jakinen aurka zuzendu ezin izan delarik”.

Urriaren 22an amaiarazi zen 1/1974 Sumarioa, Salinas Yanes epaileak emandako probidentzia baten bidez, hura idazkaritzan behin-behinean artxibatzeko xedatu baitzuen.

## 4. Prozesuaren bermeak: 1974ko sumarioaren azterketa

---

Azken atal honen xedea da 1973ko martxoaren 24 hartan izandako gertaerak argitzen saiatzean egindako askotariko jarduketak –polizialak nahiz judizialak– aztertzea eta baloratzea, prozesuaren bermeei dagozkien estandarretara egokitzen diren ikusteko.

Gertaera haien egiletasunari buruz abiapuntutzat hartutako hipotesia gorabehera, bistakoa da elementu horrek ez duela aldatzen prozesuari lotutako eskakizunen indarraldi betea. Hau da, delitu-ekintza bat gertatzean, ekintza horren ikerketa poliziala eta judiziala berme juridiko guztiekin gauzatzeko obligazioak bere horretan jarraitzen du; ikerketa hori, hain zuzen, legez horretarako eskumena eta erantzukizuna duen elementuak egingo du, hots Estatuak, bere erakunde eta aginte-botereen bitartez.

## 4.1. Frantzia egindako jarduketak

Frantziak egindako jarduketei dagokionez, nabarmentzekoa da, gertaerak ustez lurralde horretan gertatu arren eta, beraz, Frantzia izanagatik ere desagerepenen berri izateko lehentasunezko jurisdikzioa, herrialde horretan egindako ikerketak jarduera polizial batzuetara mugatu zirela, eta ez zela gertatutakoari buruzko prozesu judizialik ireki.

Antza, polizia-jarduera horien xede bakarra gazteak bilatzea izan zen, eta, emaitzarik lortu ez zenez, ez dirudi desagerepenaren inguruabarretan sakontzeko edo ustezko egileak nor izan ziren ikertzeko ahalegin berezirik egin zenik, ez behintzat indar handiz. Zalantzarik gabe, deskribatutako gertaera horien aurrean, zentzuzkoena litzateke Frantziako epaitegi batean (kasu horri zegokion epaitegian) zenbait eginbide ofizioz hasteko eskatzea, batik bat desagerepenak denboran iraun duela kontuan hartuta.

Beraz, ez dirudi zentzugabea adieraztea Frantziako estatuko agintari eskudunek utzikieriaz jokatu zutela eta ez zituztela beren betebeharrak bete, ez baitzuten egin zentzuz eskatzeko modukoa zen ikerketa bat, eta ez baitzion prozesu judizial bati hasiera eman, zirkunstantziek hala eskatu arren<sup>83</sup>.

## 4.2. Espainiako agintaritzen jarduketak

Kontakizun faktikoan adierazi den moduan, eta sumarioaren alderdi nagusien atalean jasota geratu den bezala, Espainiako auzitegietan bi prozesu penal hasi ziren kasu honekin lotuta: lehenengoa, Donostiako 3. Instrukzio Epaitegian, eta bigarrena, Auzitegi Nazionalean.

Giza Eskubideen Katedrako taldeak aipatutako sumarioetatik lehenengoa soilik eskuratu ahal izan du; beraz, ondorengo lerroetan, Donostian egindako instrukzio-fasearen baitan gauzatutako jarduketei soilik egingo zaie erreferentzia, horiei buruz soilik egin baitaitezke zalantzarik gabeko adierazpenak.

Ildo horretan, merezi du hainbat gai eztabaidagarri lantzea, guztiak ere 1975. urtekoak, antza, desagerepenak gertatu zirenetik bi urtera.

Jarduketen ordena kronologikoari jarraituz, hautemandako lehen arazoetako bat ebazpen judizialen –funtsean, autoen– arrazoiketa eskasa da, kereila jarri duen alderdiak egindako eskaerak ukatzen baitituzte, bereziki, eskatutako eginbideak egitea ukatzearekin lotuta, bai eta organo judizialak berak aginpiderik ez duela ebatzita.

Hona ekartzea merezi duen bigarren unea martxoaren 20ko autoa hartzekoa da, zehaztutako pertsonak auzipetzeari uko egitearen aurka kereila-jartzaileak ezarritako erreforma-errekurtsoa ebazten duena. Bertan, epaileak uste zuen “aurkaratutako ebazpena ematean kontuan hartu ziren oinarriak” ez zirela indargabeku errekurtsio-jartzailearen alegazioak tarteko, bi argudio zirela-eta. Argudio horiek aztertzen hasi aurretik, ordea, azpimarratu behar da oinarriei pluralean egiten erreferentzia ez datorrela bat inpugnatutako autoaren edukiarekin, aurreko lerroetan adierazi bezala, argudio bakarra erabili baitzen auzipetzeari uko egitea arrazoitzeko.

Epaileak emandako arrazoi zehatzei dagokionez, lehenengo arrazoiak errekurtsioa jarri zaion autoan aipatutakoa errepikatzen du beste modu batean. Horri dagokionez, arrazoiketaren ikuspegitik, zalantza ez du sortzen argudio bera erabiltzeak, errekurtsioegilearen alegazioei erreferentziarik ez egiteak baizik, hark berariaz aipatu baitzituen zer eginbide jotzen zituen erabakigarritzat auzipetzea eskatzeko. Oinarri orokorregietara jo beharrean, erantzun zehatz bat emateko eska zitekeen, auzipetzea agintzeko gauzatutako eginbideen emaitza hain eskasa zergatik izan zen zehaztuz.

Lehen arrazoi horrekin batera, martxoaren 6ko autoaren erreformari uko egiteko, magistratuak nabarmendu zuen ez zuela aginpiderik gertaera haien berri izateko, bere iritziz ez baitziren betetzen Botere Judizialaren Lege Organikoaren 339. artikuluan xedatutako baldintzak. Merezi du gai horrekin lanketa zehatua eta espezifikoa egitea, askotariko eztabaidak sortzen baititu. Hasteko, nabarmendu behar da instrukzioak iraun zuen

83 Horri dagokionez, Golder Erresuma Batuen aurka epaian, Giza Eskubideen Europako Auzitegiak adierazi zuen Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 6.1. artikuluan zehazten den eskubideak –epailetara jotzeko eskubideak– ez diola soilik eragiten auzitegi edo epaile eskudunaren aurrean prozesua garatzeari, behin prozesua ireki edo antolatuta denean; hau da, agintaritzak eskudunak prozesua bera hastea edo irekitzea bultzatzeko eskubidea aintzat hartzen du. Ikus HARRIS, O’BOYLE eta WARBRICK: Law of the European Convention on Human Rights, hirugarren argitalpena, Oxford University Press, 398. or., 2014.

---

aldian, 1973ko maiatzetik 1975eko martxora (bi urtetik gora), ez zela alderdi hori aipatu; izan ere, zirkunstantziak, antza, gutxi aldatu ziren, edo batere ez, kereila jarri zen unetik ordura arte. Nolanahi ere, aginpiderik ezaren kausak bat-batean gerta zitekeela onartu arren, arrazoiketa-falta nabarmena da berriro, ez baitago aginpiderik ez izate hori azaltzeko arrazoirik, baldintzak era abstraktuan ez betetzeaz harago (zer eta zergatik zehaztu gabe). Aldi berean, hain gai garrantzitsua denez gero, bidezkoa izango zen aginpiderik ez izate hori autoaren hasieratik adieraztea, eta ez zirkunstantzia hori argudiotzat erabiltzea ustezko susmagarriren bat ez auzipetzea defendatzeko. Are gehiago, horrela jokatzuz, inkongruentzia argian eroriko litzateke, aginpiderik ez duen organo batek ezingo bailuke ez baloratu ez erabakirik hartu eskatutako eginbideen egokitasunaren inguruan, kereila-jartzaileak gerora aurkeztutako apelazio-errekurtsoan adierazten duen bezala.

Azaldutakoaz batera, gertaeren berri izateko aginpiderik gabekotzat jotzeak sakoneko gai garrantzitsu bat azaleratzen du, horren bidez kotasanari edo bidezkoa ez izateari buruzkoa. Zentzu horretan, horrelakotzat jotzea zerk eragin duen zehaztu ez arren, kasuaren zirkunstantziak kontuan harturik, eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 339. artikulua edukia oinarri hartuta, aukera bakarra da organoari aginpiderik ez onartzea, delituaren ustezko egileak ez zeudelako Espainiako lurraldean<sup>84</sup>. Nolanahi ere, presuntzio baten aurrean gaude, eta ez da, gerora, gai nagusitzat hartu.

Gaiaren funtsari buruzko erabakiaren egokitasuna edo egokitasun eza aparte utzirik, arrazoiketa-falta agerikoa da, eta nahiz eta aginpiderik gabekotzat jotzearen aurkako erreforma-errekurtsoa jarri zen, magistratu instrukziogileak ez zuen gai hori aintzat hartu, ez izapidetzeko onartzeko erabakian ez ebazpen-autoan; soil-soilik errekurritutako beste gaiari –hurrengo lerroetan aipatuko diren ikerketako zenbait eginbide gauzatzeari uko egitea– buruzko erabakia hartu zuen.

Sumario horren instrukzioan, akusazioak, behin eta berriz, eginbide bat gauzatzeko egindako eskaera nabarmendu behar da, hain zuzen, Frantziako agintaritza polizialei eta judizialei eskatzea gertaerak argitzeko ikerketak egitea beren lurraldean. Hasierako kereilan eskatu arren, atzera bota zen, eginbide hori prozesuko une egokiago batean gauzatzeko egokiagoa zela argudiatuta, “gertaera horien ziurtasun eta zehaztasun handiagoa” den une batean, hain zuzen. Martxoaren 8ko idatzian, berriro egin zuten eskaera hori, baina apirilaren 10eko autoan ukatu egin zen, beste zenbait eginbiderekin batera, iritzi baitzen ez zirela “beharrezkoak sumarioak aurrera jarrai zezan”. Erantzun horiek harrigarriak dira; izan ere, kereila jarri zuen alderdiak adierazi bezala, gertaerak Frantziako lurraldean gertatu zirenez, estatu horretako agintaritzak lirake ego-kienak gertaera horiek bermerik handienaz ikertzeko. Egiaz, ez da zentzugabea pentsatzea eginbide zehatz horrek garrantzi handia izan zezakeela ikerketak zer bilakaera izango zuen zehazteko eta zer gertatu zen jakiteko, bai eta, finean, erantzukizunak egotzi ahal izateko ere. Aldi berean, argudio hori erabil daiteke auto berean uko egin zitzaiezen beste eginbide batzuetan ere, Interpoli zenbait informazio eskatzearekin loturikoetan, esaterako. Halaber, instrukzio-fase horretako ebazpen judizial gehienetan bezala, apirilaren 10eko autoan ez da arrazoiketa-lan handirik hauteman (ezaugarri bereizgarri hori dute), inongo kasutan ez baita zehaztu zergatik ez diren funtsezkoak eskatutako eginbideak; hau da, estereotipatutzat eta orokorregitzat har daitekeen esaldi bakar batez adierazten du iritzi hori<sup>85</sup>.

Donostiako 3. Instrukzio Epaitegiak instruitutako sumarioko zenbait alderdi eztabaidagarriekin amaitzeko, apirilaren 17ko autoa aipatu behar da, sumarioa amaitutzat eman zuena, prozedura zehazki noren aurka abiatu jakiterik ez zela-eta. Egia da, bai, ez zeudela behar beste zantzu akusazioak salatutako inor auzipetzea agintzeko, baina badirudi erabaki horretan zerikusia izan zuela bidezko ikerketa-baliabide guztiak erabili ez izanak, beharrezko baldintza izan arren prozedura-legeen arabera largespena agintzeko<sup>86</sup>. Aldi berean, beharrezko ikerketa-baliabide guztiak baliatu izan balira ere, horrelako erabaki batean, gutxienez, sakontasun handiagok azaldu beharko lirakeke zer arrazoi izan zituen oinarri magistratuak erabakitzeko ez zegoela zantzurik akusazioak salatutako pertsonak auzipetzeko<sup>87</sup>.

---

84 1970eko Botere Judizialaren Lege Organikoaren 339.2 artikulua.

85 Konstituzio Auzitegiaren 133/2003 Epaia, ekainaren 30ekoa.

86 Konstituzio Auzitegiaren 46/1982 Epaia, uztailearen 12koa.

87 *Ibidem*.



---

# III

## **Sintesia:** Amaierako gomendioak

---

---

1. ZER GERTATU ZEN. Iturri judizialak edo hemeroteka bilduta, gertaeren kontakizunari buruzko oso hipotesi ahula egiten da, eta ezin da honelako ikerketa akademiko baten bidez berdindu. Desagertutakoek, nolana ere, terrorismoaren biktimen errekonozimendua jaso zuten Estatuaren aldetik, modu ofizialean eta indarrean dagoen legediaren arabera. Hala ere, argi dago Frantzian eta Espainian egindako ikerketak eskasak izan zirela oso, bai hasierako unean bai ondorengo urteetan. Desagerpenak gertatu zirenetik, nabaria eta bereziki deigarria da agintaritzaren ofizialek gertaerak ikertzeko agertutako interes falta; horrez gain, prentsan agertutako informazioen artean kontraesan nabarmenak zeuden, eta aipatutakoei ez zen koherentziarik bultzadarik eman. Prentsan agertutako informazioak, gainera, oso ahulak dira, eta ez oso sinesgarriak, gertaeren bertsioa etengabe aldatu zelako, eta, oro har, egiaztatu gabeko interpretazioak zirelako. Horrez gain, prentsa eta jarduketaren judizialen bilakaera paraleloa izan zen, mugaren alde batean eta bestean, eta ez zuten borondate txiki ere agertu batarren informazioak besteekin egiaztatzeko edo, gertaerak argitzeko xedez, mugaz gaindiko gutxieneko lankidetzaren bultzatzeko.

2. DESAGERPENAREN GAURKOTASUNA. Guztiarekin ere, gertaerak ez dira iraganeko gaia. Desagerpenak egungoak dira, oraindik ez baitakigu non dauden Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veiga. Horrenbestez, gabezia edo ez jakite horrek dakarren sufrimendua, egun, oraindik, bereziki eragiten die desagertutako pertsona haien gertuko senideei. Zehaztapen teknikoek dagokienez, jokabidearen antijuridikotasunak hedatzen jarraitzen du, eta delitua egiten jarraitzen da; beraz, ikerketarik eza ez da iraganeko azterketa bat, gaur egungo aldarrikapen bat baizik, zuzenean agintari esku-dunak eta, oro har, gizarte osoa estatusunean jartzen dituenak.

3. ERAKUNDEEN JARDUKETA. Aurreko gogoeta kontuan hartuta, gelditasun hori arrazoitzeko saiakera orok zuzen-zuzenean dakar egia jakiteko eta justizia izateko eskubideaz baliatzeko zailtasun erantsia, eta hori onartezina da zehaztapen juridikoei eta humanoiei dagokienez. Agian, ideia hori argiago ikus daiteke, ustezko edozein desagerpenen aurrean egun erakusten den sentimendua bera agertzen bada gertaera haien inguruan hausnartzeko. Gertaera horiek zigorgabetasuna bermatuta zegoen garaian gertatu izanak, etsipenera eraman behar al gaitu? Agintariak ahalegin berezia egin behar lukete gertaera haiek zabalatzeko, baita egiaztatu gabe dauden baina beste ikerketa-hari batzuk aurkitzen lagundu dezaketen xehetasunak ere, betiere zehaztasun eta arduraz jokaturik. Desagerpen haiek, egungo gaia sufrimenduari dagokienez, egunera ekarri behar dira gizartearen imajinarioan eta imajinario politiko-instituzionalean ere, iraganetik gaurkotasunera ekarrita gertaera haren injustiziaz jabetu gaitzen eta egia jakiteko bidean beste akuilu bat izan dadin. Beraz, beste datu batzuk izanez gero ikerketa-eginbideak berriro irekitzeko aukeraz gain, agian baliteke beharrezkoa izatea Euskadiko botere publikoen egutegi ofizialean egun bat zehaztea desagertuta jarraitzen duten pertsonen aldarrikapena egin dadin, jazotako injustiziak gogorarazteko, oroitzen gordezko eta aitortzeko.

Gerora, Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2010eko abenduaren 21ean onartutako ebazpen bidez, "Egia jakiteko eskubidearen Nazioarteko Eguna, giza eskubideen urraketa larriei dagokienez, eta biktimen duintasunerakoa" izendatu zuten, era solemnean, martxoaren 24a (37 urte lehenago hiru coruñarrak desagertu ziren eguna); beraz, data hori baliagarria izan liteke, urtero, desagertuak gogora ekartzeko, eta haiek non dauden jakiteko ahalegin eraginkorrak egitea eskatzen jarraitzeko.

4. HERRITARREN LAGUNTZA. Gertaera horien informazioa duten eta bizirik dauden pertsonak, anonimotasunean bada ere, *notitia criminis* hori jakitera emateko ere balio dezake txosten honek, egunez egun sortzen duen sufrimendua arintze aldera. Horregatik, jarduera-lerro instituzional proaktibo bat abian jartzea proposatzen da, desagertzen horiekin loturiko gertaerei buruz informazio eguneratua emateko eta herritarrek kolaboratzera bultzatzeko, datu berriak ezagutzera eman daitezzen, egiaz zer gertatu zen jakiteko eta/edo, gutxienez, Jose Humberto Fouz Escobero, Jorge Juan Garcia Carneiro eta Fernando Quiroga Veigaren gorpuak aurkitzeko.

5. GOGORA. Azkenik, txosten hau Gogora Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuan gordetzea gomendatzen da; horrez gain, beste desagertzen-kasu batzuen txostenekin batera (hala nola Katedra berak 2017an egindako Perturri buruzko txostena), herritarren eskura egongo den informazio-kategoria berezi eta bereizi bat osatzea, eta hari atxikitzea, proposatzen da, nabarmendu ahal izateko gertaera bidegabeak eta mingarriak direla, eta, iraganean sortuak izan arren, egun, oraindik, giza eskubideen urraketa larriak eragiten dituztela.

---

# Bibliografia eta beste iturri batzuk

---

## 1. Bibliografia

- ANTOLIN, M., *Soares Gamboa, AGUR ETA*, Edit. Temas de hoy argitaletxea, 1997.
- CARCEDO, D., *Sáenz de Santa María, el general que cambió de bando*, Temas de hoy argitaletxea, 2004.
- HU-KO GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN KATEDRA, *Pertur kasuari buruzko txostena: gaiaren egungo egoera*, Eusko Jaurlaritza, 2017.
- CERDÁN, M. y RUBIO, A., *Lobo, un topo en las entrañas de ETA*, Plaza & Janes Editores, 2003.
- HARRIS, O'BOYLE & WARBRICK, *Law of the European Convention on Human Rights*, hirugarren argitalpena, Oxford University Press, 2014.
- LAMARCA C., "Capítulo segundo: tratamiento jurídico del Terrorismo en el Derecho Penal Español. Aproximación histórica", *Tratamiento jurídico el terrorismo*, Justizia Ministerioaren argitalpen-zerbitzua, Madril, 1985.
- MUNDO TV (Reportaje del), *"El crimen más oculto de ETA"* Antena 3 TV, 2005.
- SÁINZ GONZÁLEZ, J., *Testimonios de un policía español*, Sáinz González, José argitaletxea, 1993.

## 2. Kontsultatutako jurisprudentzia

- Konstituzio Auzitegiaren 46/1982 Epaia, uztailaren 12koa.
- Konstituzio Auzitegiaren 133/2003 Epaia, ekainaren 30ekoa.
- Konstituzio Auzitegiaren 101/2012 Epaia, otsailaren 27koa.
- 1/1974 SUMARIOA. Donostiako 3. Instrukzio Epaitegia.

## 3. Hemeroteka

- CIFRA, "Tres jóvenes coruñeses, residentes en Irun, desaparecidos", LA VOZ DE GALICIA. 1973ko apirilaren 6a.
- CIFRA, "Demanda judicial por la desaparición de los tres jóvenes gallegos". ABC. 1974ko urtarrilaren 3a.
- CIFRA, "ETA amenaza a tres gallegos residentes en Vizcaya". ABC. 1974ko urtarrilaren 6a.
- DOMINGUEZ, F., "Cadáveres en el armario de ETA" LA VANGUARDIA, 2000ko apirilaren 30a.
- EFE, "Los tres gallegos desaparecidos en Francia fueron asesinados por ETA" LA VOZ DE GALICIA. 1973ko maiatzaren 29a.
- EFE, "Acusan a la ETA de asesinar a los tres trabajadores gallegos desaparecidos" ABC. 1973ko maiatzaren 29a.
- EFE, "Tomás Pérez Revilla, alto jefe de la ETA, detenido en San Juan de Luz". ABC. 1974ko urtarrilaren 5a.
- EFE, "La emoción de una diputada del PSE-EE logra el consenso de la Cámara vasca para aprobar una iniciativa". EL MUNDO. 2005eko otsailaren 3a.
- EFE, "El fiscal de San Sebastián pide que se investigue el paradero de tres presuntas víctimas de ETA en 1973". EL MUNDO. 2005eko azaroaren 9a.
- EL MUNDOko erredakzioa, 2005eko uztailaren 11.
- EL MUNDOko erredakzioa, "Los tres gallegos desaparecidos, otro gran misterio de ETA. El mundo. 2005eko uztailaren 11.

EL MUNDOKo erredakzioa, “Me puse muy nervioso cuando ‘Peixoto’ me dijo que les sacaron los ojos con un destornillador”, 2005eko azaroaren 7a. Elkarrizketa: Mikel Lejarza, “Lobo” / Agente infiltratua.

EL PAÍSko erredakzioa, “Concedida a Lluch la Gran Cruz de Sanidad”. EL PAÍS. 2000ko azaroaren 25a.

LA VOZ DE GALICIAko erredakzioa. “La Misteriosa desaparición de los tres jóvenes gallegos cerca de San Juan de Luz”, 1974ko urtarrilaren 4a.

LOGOS “Sin noticias de los tres gallegos agredidos en Francia”. LA VANGUARDIA. 1973ko apirilaren 29a.

PAGOLA, J. “La granja de los horrores de ETA” ABC. 20015eko otsailaren 2a.

ROJO, A., “El crimen más oculto de ETA”. CRÓNICA (EL MUNDO). 2001eko uztailaren 17a.

ROMERO, S., “El crimen más oscuro de ETA”. LA OPINIÓN A CORUÑA. 2017ko apirilaren 24a.

RUIZ, ANA, “Una senadora del PSE pregunta a Mayor por la muerte de tres jóvenes en 1973 supuestamente a manos de ETA. EL PAÍS. 1999ko martxoaren 25a.

SEMPRÚN, A., “Tres jóvenes españoles. Desaparecidos”. ABC. 1973ko apirilaren 22a.

SEMPRUN, A., “Aún no hay noticias de los tres jóvenes españoles desaparecidos”. ABC. 1973ko apirilaren 24a.

SEMPRUN, A., “No se ha investigado rigurosamente el paradero de tres españoles en Francia”. ABC. 1973ko ekainaren 1a.

SEMPRUN, A., “Renace el misterio sobre la desaparición de tres jóvenes gallegos en Francia”. ABC. 1973ko irailaren 8a.

SEMPRUN, A., “Ha surgido una posible pista en Alsasua: el conductor de un camión pudo haber sido obligado a desviarse de su ruta por uno de los terroristas”. ABC. 1973ko abenduaren 26a.

SEMPRUN, A., “La reaparición de Francisco Iturrioz en la escena ‘Etarra` inicio de la grave escalada en la violencia” El asesinato de los tres jóvenes gallegos continua impune. ABC. 1973ko abenduaren 27a.

SEMPRUN, A., “Muerto por elemento de la E.T.A. en Bayona”. ABC 1974ko urtarrilaren 8a.

SEMPRUN, A., “Pérez Revilla, detenido por violación”. ABC 1974ko urtarrilaren 10a.

Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren txostena epaile instrukziogileari, 1974ko apirilaren 29a.

#### 4. *Beste iturri batzuk*

BARNE MINISTERIOA, “Fallecidos Terrorismo Indemnizados Ministerio Interior” Terrorismoaren Biktimei laguntzeko Zuzendaritza Nagusia.

Coral Rodríguez Fouzekin 2017ko urriaren 19an izandako telefono-elkarrizketa.

[http://www.youtube.com/watch?v=PhUE\\_6SEGYg](http://www.youtube.com/watch?v=PhUE_6SEGYg)

<https://www.youtube.com/watch?v=pvnjh7QOfz0>

